2022ko abenduaren 16a | 21. urtea | 918. alea
Durangaldeko astekaria
www.anboto.org
anboto

Euskararen kale erabilera %11 igo da Zaldibarren azken hamabost urteetan

Euskara • Zaldibarko Udalak eskatuta, Soziolinguistika Klusterrak Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa egin du. Zaldibarren egiten duen laugarren neurketa da. 2006an egin zuen lehenengoa, eta ordutik hona euskararen kale erabilera hamaika puntu igo da; 2006an %19koa zen euskararen kale erabilera, eta 2022an %31koa izan da. Hau da, Zaldibarren hamar lagunetik hiruk euskaraz egiten dute gaur egun. • **10**

"Ez dakigu kanpotik datozen, zenbat dauden... Inkognita asko dago mendi-tuntun txoriekin"

Ornitologia • Gorka Valdés durangarra mendi-tuntun espezieko txoriak eraztuntzen dabil. Euskal Herrian lan hori egiten duen lehenengoa da. Txori honi buruz oso gutxi dakigula eta gehiago ezagutzea merezi duela dio. • **2-3**

Iurretako Hiri Proba, domekan

Korrika • Nazioarteko goi mailako kirolariak afizioa dutenekin batera arituko dira. Gazte mailetako lasterketak ere izango dira. • **28**

Gehigarria

ARTEKALE 35.
PROIEKTU BERRIA
2 eta 3 logelatako etxebizitzak trastelekuarekin
promociones QUADRA

LIVING BILBAO
#ASESORESINMOBILIARIOS
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
94 640 47 82
www.livingbilbao.com
inmo@livingbilbao.com

Gorka Valdes Etxeberria

Txoriak eraztuntzen ditu

DURANGO I **2000**

"Mendi-tuntunaren populazioa %30 jaitsiko ei da 2050erako eta ezer gutxi dakigu txori honen inguruan"

Gorka Valdesek mendi-tuntun espezieko txoriak eraztuntzen ditu Durangaldean. Euskal Herrian lehenengoa da horretan

ORNITOLOGIA • JOSEBA DERTEANO

Ingurumen Zientzien ikasketak landa lanagaz uztartzen dabil Gorka Valdés durangar gaztea, Aranzadi Zientzia Elkartearen bitartez. Mendi-tuntunak harrapatu eta eraztun bat ipintzen die askatu aurretik. Azaroan hasi zen horretan eta otsailera arte jarraituko du. Mendi-tuntunari buruz oso gutxi dakigula eta gehiago jakitea merezi duela uste du.

Nondik datorkizu txoriekiko afizioa?

Txikitan denbora asko ematen nuen amama jaio zen baserrian. Lehengusuak, osaba… ehiztariak ziren eta ni ere eurekin joaten hasi nintzen. Lasterrera ikusi nuen armak ez zirela nire bidea eta eskopeta argazki kamararengaitik aldatu nuen. Orain familiako ardi beltza naiz (barrez).

Zelan sortu zaizu ikerketa hau egiteko aukera?

Eraztunak ezin ditu edonork ipini. Hegazti eraztuntzailea izan behar duzu. Lehenengo, formakuntza garai bat dago: 60 espezie desberdinetako 1.500 txori eraztundu behar dira. Bi-hiru urteko formakuntza horren ondoren, azterketa bat gainditu behar da. Nik orain dela urtebete gainditu nuen eta aurten mendi-tuntunak eraztuntzen hasi naiz.

Zergaitik txori mota hau? Zeuk aukeratu duzu?

Bai, neuk aukeratu dut. Lehenengo eta behin, Urkiola etxetik gertu dagoelako eta hori garrantzitsua da. Eta gero, oso txori interesgarria delako. Datozen urteetan, aldaketa klimatikoak eragin handia izango du txoriengan, baina batez ere alpetar habitatean bizi direnengan. Mendi-tuntunaren populazioa %30 jaitsiko ei da 2050erako eta ezer gutxi dakigu txori honen inguruan. Mendi puntetan bizi denez, oso jende gutxi dago prest haraino joan eta eurak eraztuntzeko. Lan neketsua da. Ulertu behar da boluntario lana dela; horrelakoetan ez dugu ezer kobratzen. Militantzia ornitologikoz ibiltzen gara, ehuneko ehunean. Beraz, esango nuke lan interesgarria dela txori honi buruz gehiago jakiteko.

> ***Mendi-tuntunen bat eraztunagaz ikusi duenak iformazioa helarazi dezake: 'ring@aranzadi.eus' edo 'Colouring.eus'***

Zer da txori honi buruz ezagutu gura duzuena?

Ez dakigu kanpotik datozen ala ez, urtero toki berera datozen, zenbat dauden… Inkognita asko dago. Txori sedentarioa dela uste zen, ez zela asko mugitzen jaiotzen zen tokitik. Baina ikusi da udaberrian egoten ez den mendi batzuetan agertzen dela neguan. Alacanten badago pertsona bat hamarkada bat daramana txori hauek eraztuntzen, eta berak markaturiko txori bat Frantziako Alpeetan ikusi zuten. Horrek esan gura du uste zen baino gehiago mugitzen direla. Urkiolan ere udaberrian ikusten dira, euren kumatze sasoian, baina ez neguan beste. Susmoa dugu kanpotik datozela.

Zertan datza landa-lana?

Txoriei eraztun bana ipintzen diegu, euren NANa izango litzatekeena. Horrela, txori hori indibidualizatzea lortzen dugu. Neurtu egiten ditugu, odol analisiak hartzen ditugu… Harrapatzeko gatxak direnez, ahalik eta daturik gehien batzeko aprobetxatzen dugu. Prozesu azkarra da; hartu eta bost minutura aske daude. Ahalik eta estresik gutxien eragiten ahalegintzen gara. Azaroan hasi nintzen eta otsailera arte jarraituko dut.

Gorka Valdés mendi-tuntun baten hegoa aztertzen.

Mendi-tuntunak badu beste txoriek ez duten bereizgarririk? Fisikoki, ohiturei dagokienez...

Bizi den eremuetan jateko gutxi egoten denez, txori poliandrikoa da. Hau da, eme bat ar askogaz parekatzen da eta ar guztiek parte hartzen dute txiten zaintzan. Beraz, laguntza gehiago du txitentzat janaria lortzeko. Pirinioetan eme bat zortzi arregaz ikusi da txitak zaintzen.

> ***Orain arte dozena bat harrapatu ditut, eta otsailerako 20-25era heltzea da nire helburua***

Beste toki batzuetan eraztundu izan dira mendi-tuntunak, baina Euskal Herrian zeu zara hori egiten lehenengoa.

Euskal Herrian bai, lehenengo aldia da hau. Estatuan, Pirinioetan, Europako Mendietan eta Alacanten egin izan dira.

Zuk batzen duzun informazioa beste toki batzuetako ikerketetako emaitzekin konparatzen da?

Nire datuak Aranzadiri bidaltzen dizkiot. Eta Aranzadik EURING-i bildatzen dizkio. Europan eraztuntze guztiak ordenatzen dituen entea da EURING.

Zenbat eta datu gehiago, orduan eta ikertea hobea izango da.

Bai. Eta, alde horretatik, mendizaleen edo mendian dabiltzanen laguntza eskatu gura dut. Inork mendi-tuntunen bat koloretako eraztun bategaz ikusten badu, asko eskertuko nioke guri informazioa helaraztea. Txoria non eta noiz ikusi den, horixe da guretzat informaziorik garrantzitsuena. Gura duenak argazkia ere bidali dezake. Azken batean, erraza da mendi-tuntunari argazki bat ateratzea, sarritan begi bistan egoten da eta. Mugikorragaz atera daiteke argazkia. Oso txori konfiatua da. Mendietan, eskalada guneetan... jendea ibiltzen den tokietan ibiltzen da. Orain arte jaso ditugun argazkiak mendizaleek mugikorragaz ateratakoak dira.

Zelan helarazi dezakete informazioa?

Modu bi daude. Batetik, *Colouring.eus* plataforma. Bestetik, Aranzadiko eraztuntze bulegora idatzita: *ring@aranzadi.eus*. Modu horretara, behaketa horiek gure datu basean erregistratuta geratuko dira.

Oraingoz, zelan doa landa-lana?

Asko gerturatzen den txoria da, baina harrapatzea nahiko gatxa da! Denbora asko behar da eta nekosoa da. Hotz handia pasatu behar da gutxi batzuk harrapatzeko. Batzuetan apur bat frustragarria ere bada, eta "zertan nabil ni hemen" esaten diot neure buruari. Baina, gero, bat harrapatuz gero, biharamunean berriro joateko energia izaten duzu. Orain arte dozena bat harrapatu ditut, eta otsailerako 20-25era heltzea da nire helburua.

Non egoten zara?

Batez ere Mugarrikolanda inguruan egoten naiz. Handik jende asko dabil eta hango txoriren bat eraztunduz gero errazagoa da gerora norbaitek ikustea. Atxarteko haitz inguruetan eraztundutako txori bat ikustea askoz ere gatxagoa da. Asteburuetan, jaiegunetan eta ahal dudan guztietan joaten naiz.

Harrapatu dituzun txoriekin, eta ikusi duzunagaz, atera duzu ondoriorik?

Goiz da ondorioetarako. Gainera, txoriak hemen daude oraindino. Udaberrian mugitzen direnean, baliteke baten batek nik eraztuna ipinitako txoriren bat Alpeetan edo antzeko tokiren batean ikustea.

Hori itzela litzateke!

Benetan ere! Ez dakit zer egingo nuen ospatzeko, Moet Chandon xanpain botilaren bat zabaldu edo!

Durangaldeko ekoizleen produktuak ezagutzeko eta dastatzeko jardunaldiak antolatu dituzte herririk herri

Elikatu Durangaldea dinamikak eskualdeko ekoizleen lana eta produktuak ezagutarazteko kanpaina hasi du. Datozen egunetan lau jardunaldi egingo dituzte hainbat herritan. Zigor Iturrietak ekin dio kanpainari, 300 ikasleren aurrean

Zigor Iturrietak elikadurak norbere osasunean eta inguruko ekonomian duen eragina azaldu die ikasleei.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

"Jatorrian dago helmuga". Elikatu Durangaldea dinamikak mezu horregaz definitu du eskualdeko ekoizleen lana ezagutarazteko kanpaina berria. Elikadura burujabetzaren hausnarketa piztea gura dute, horregaz komunitatea sortzeko. Zigor Iturrieta sukaldari, kirolari eta telebista aurkezlea arduratu da kanpaina hasteaz. Iturrietak aurkezpen erraldoi bat egin du asteon, San Agustin Kulturgunean baturiko 300 bat ikasleren aurrean. Elikadura ereduak norberaren osasunean, eskualdeko ekonomian eta gizartean duen eraginaz ohartarazi die ikasleei. Koilara eskuan, Durangaldeko ekoizleen eta dendarien aldeko argazkia atera zuten. Horrez gainera, Elikatu Durangaldeak jardunaldiak egingo ditu eskualdeko udalerrietan, bertako ekoizleen produktuak ezagutarazteko.

Jardunaldiak, herrika

Iurretako Bizio sagardotegiko kideek etorkizuneko sagardogintzari loturiko proposamenak aurkeztuko dituzte Traña-Matienako Taberna Zarran (Abadiño). Dastatzea egin eta azalpenak emango dituzte, abenduaren 15ean, 19:00etan. Arrazolako Panarra okindegiko Gabi Romerok (Atxondo) gaur egungo ogi artisaua ipiniko du elorriarren eskura. Dastatzea eta jardunaldia egingo dituzte, abenduaren 16an, 12:30ean, Elorrioko plazan. Ana De la Maza garaitarrak bere garagardo eta kontserbak aurkeztuko ditu Zornotzako udal plazan. Jardunaldia abenduaren 17an izango da, 12:00etan. Azkenik, Iurretako Bizio sagardotegiko kideek beste jardunaldi bat egingo dute Ermuko Orbe Kardinala plazan. Abenduaren 18an egingo dute, 12:00etan.

Zapatuan kalejira egingo dute Durangon, migratzaileen eskubideak aldarrikatzeko

"Migratzaileak langileak gara, ez gara turismoa egitera etorri, gure herrialdeak uztera bultzatuta egon gara mila modutan", esan dute migratzaileen eskubideen aldeko eragileek

DURANGO • E.H.

Zapatuan kalejira egingo dute Durangon, migratzaileen eskubideen alde lan egiten duten eragileek deituta. Argi diote: "Migratzaileak langileak gara, ez gara turismoa egitera etorri. Gure herrialdeak uztera bultzatuta egon gara hainbat arrazoigaitik: gerragaitik, goseagaitik, aldaketa klimatikoagaitik, bazterkeriagaitik,...", esan dute ohar bidez. Kalejiran hainbat eskaera egingo dute: egoera irregularrean dauden migratzaile guztien erregularizazioa, migratzeko bide seguruak eta legalak, Atzerritartasun Legea indargabetzea eta Etxeko Langileentzako Hitzarmen Kolektiboa. Kalejira Ezkurditik irtengo da, 17:00etan.

Herritar migratzaileen alde egindako sinadura bilketa bat, Durangon.

Umeentzat txintxaunak ipini dituzte Sasikoa kalean

Kalearen alde batean ipini dituzte, Sasikoa eta Zabalarra kaleek bat egiten duten berdegunean

DURANGO • E.H.

Errotaritxuena, Txibitena eta San Inazio aldeko jolas parkeak berritu eta gero, Durangoko Udalak jolasgune berri bat egin du Sasikoan. Aurrera begira, antzerako proiektuak garatuko dituzte Tabiran eta San Fauston. Hain zuzen ere, 2023ko aurrekontuetan diru poltsa bat gorde dute horretarako: 428.000 euro. San Inaziokoan, gainera, teilatua ipiniko diote parkeari. 200.000 euro erabiliko dituzte horretarako. Udalak "ahaztuta zeuden espazioak berreskuratzeko eta eraberritzeko apustua" egin du.

Sasikoako jolasgune berria.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko abenduaren 16a
21. urtea - 918. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO · AMOREBIETA - ETXANO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · IURRETA · IZURTZA · MALLABIA · MAÑARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangon 'Ibiltari' martxa solidarioa egingo dute etzi, migratzera behartuta dauden emakumeei laguntzeko

Izen-emateagaz baturiko dirua Alboan GKEak Afrikan eta Erdialdeko Amerikan dituen proiektuetara bideratuko dute

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Alboan Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta San Jose Jesuitak Ikastetxeak 'Ibiltari' izeneko martxa solidarioa antolatu dute domekarako. Indarkeria mota askogaitik migratzera behartuta dauden emakumeen gaia mahai gainean ipintzea eta arlo horretako proiektuetarako diru bilketa egitea dira ekimenaren helburuak.

Martxa Ezkurdi plazan hasiko da, 11:00etan. Ibilbideak zazpi kilometro ditu. San Andres auzora igo eta Larrinagatxutik jaitsiko dira. Martxa Ezkurdin amaituko da, 13:00-13:30 inguruan.

Izen-ematea egunean bertan edo aurretik egin daiteke, *ibiltari.alboan.org* gunean. 10 euroko diru dohaintzaren truke martxarako dortsala eskuratuko da. 12 urtetik beherakoentzat 5 euro da. Dortsalak egunean bertan edo aurretik jaso daitezke: barikuan 17:00etatik 19:00etara, Jesuitak ikastetxean. Martxan parte hartu ez baina diru ekarpena egin gura duenak badu horretarako aukera. Webgunean '0' dortsala ipintzen duen tokian egin dezake 10 euroko ekarpena. Martxara laranja koloreko arropagaz joatera animatu dituzte parte hartzaileak, horixe delako Alboan GKEaren kolorea.

Alboan-eko Sara Diego, Jesuitak ikastetxeko zuzendari Alfredo Sarriugarte eta kulturartekotasun proiektuetako arduradun Alaia Berganza, aurkezpenean.

Itzuliko etapetariko bat Zornotzan hasi eta amaituko da

ZORNOTZA • M.Z. / E.H.

Itzuliak aurtengo edizioaren xehetasun batzuk argitzeari ekin dio apurka-apurka. Lasterketa apirilaren 3an hasiko da, Gasteizen (Araba), eta apirilaren 8an amaituko da, Eibarren (Gipuzkoa). Egun horietan zehar, lasterketa Durangaldetik ere igaroko da. Apirilaren 7an, hain zuzen ere. Egun horretan, Zornotza txirrindularizaleen bilgune bihurtuko da. Izan ere, bertan hasi eta bertan amaituko da lasterketako azken-aurreko etapa.

Honako hauek dira gainerako etapak: Gasteiz - Bastida (Araba), Viana - Leitza (Nafarroa), Errenteria - Villabona (Gipuzkoa), Santurtzi-Santurtzi (Bizkaia), Zornotza - Zornotza eta Eibar-Eibar (Gipuzkoa).

"Gazteek Gazte Eguna egiten duten moduan, adin bat dugunok Karroza Egune egingo dugu"

Zapatuan, 70eko eta 80ko hamarkadetan girotutako jaia egingo dute Luis Urrengoetxea kaleko tabernetan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Luis Urrengoetxea kaleko tabernarien elkarteak Karroza Egune antolatu du zapaturako, 70eko eta 80ko hamarkadetan girotutako jaia. Leku Berri jatetxeko Kontxi Gisasola, adibidez, gogotsu dago jaia hartzeko. Berak azaldu ditu jaiaren gorabeherak, elkarteko gainerako tabernarien izenean: "Zergaitik ez dugu Karroza Egune egingo?", dio. "Gazteek Gazte Egunа antolatzen duten moduan, adin bat dugunok Karroza Egune egingo dugu". Bost bat urte pasatu dira jaia lehenengoz egin zutenetik, eta, Gisasolak dioenez, "oso harrera ona" izan du urtero-urtero. Hori bai, argi utzi du jaia adinez nagusitxoak direnentzat bakarrik ez, gazteentzat ere oso aproposa dela. "Gazteek ederto erantzuten dute. Bai, bai. Karroza Egune gora eta Karroza Egune behera, baina gazteek 70eko eta 80ko hamarkadetako kanta asko abestu eta dantzatzen dituzte gero!", adierazi du. Alde horretatik, mundu guztia gonbidatu du jaira: "Giro gaztea eta giro *karroza*, biak batuko dira".

Kontxi Gisasola Leku Berri jatetxeko arduraduna da.

Iurretan gaur arte gordeta egon dira 150 urtetik gora dituzten eta euskaraz idatzita dauden 539 sermoi

Leandro Zelaieta Ybarra eleizgizonaren sermoiak sailkatu eta ordenatu ditu Antton Mari Aldekoa-Otalora iurretarrak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Urteetan kutxa batean gordeta egon ondoren, 150 urtetik gora dituzten eta euskaraz idatzita dauden sermoiak ordenatu eta sailkatu ditu Antton Mari Aldekoa-Otalora iurretarrak. Guztira, 539 sermoi sailkatu ditu, elizaren liturgia-urtearen arabera. Hiru kenduta, beste guztiak euskaraz idatzita daude. XIX. mendeko agiriok Orozketako abadetxea lez ezaguturiko eraikinean gordeta egon dira gaur egunera arte. Sermoi bakoitzeko orrialdeak hariz josita gorde dira. Denera, 3.790 orrialde daude.



Orozketako elizgizonak euskaraz idatzitako sermoiak sailkatu ditu Aldeko-Otalorak.

Orozketan jaiotako Leandro Zelaieta Ybarra elizgizonak (1852-1916) idatzitakoak dira sermoirik gehienak. Baina badago Leandroren osaba Frai Carlos Antonio Celayetaren sermoi bat ere. Aipatzekoa da Carlos Antonio Celayeta eta Juan Antonio Celayeta anaia frantziskotarrek Orozketako ermita berriztatu zutela 1866an. Orain lau urte heldu ziren agiri hauek Aldekoa-Otaloraren eskuetara, Juan Thomas Zelaieta Hormaetxeak Leandro semearentzat eraiki zuen Orozketako etxean gordeta egondakoak. Eta Aldekoa-Otalorak Labayru Fundaziora eraman zituen. Hala ere, berriro hartu eta koaderno batean sailkatu ditu.

Leandro Zelaietaren biografia labur bat ere osatu du. Orozketara etorri aurretik, Gasteizko katedraleko koruaren zuzendaria izan zen, eta musikaria ere bazen. "Gizon jantzia izan zen, euskaraz idazten zuena. 1891n, Iurretan Euskal Lore Jokoak antolatzekoak ziren urtean, Zelaieta, Jose Mari Ampuerogaz, Balbino Garitonandiagaz, Jose Mari Bernaolagaz, Bartolome Ertzillagaz, Arrese Beitiagaz, Resurección María de Azcuegaz eta Sabino Arana Goirigaz elkartu zen, besteak beste", dio Aldekoa-Otalorak. Iurretarraren lana Labayrun dago eskuragarri.

Orekarte, bigarren eskuko eta artisau azoka egingo dute Iurretan zapatuan

Goizean zehar egongo da zabalik, Askondoko karpan; guztira 23 postu jarriko dituztela azaldu dute antolatzaileek

Hainbat artisau-lan ikusteko eta erosteko aukera egongo da.

IURRETA • A.B.

Orekarte, bigarren eskuko eta artisautza azoka egingo dute Iurretan, zapatuan. Askondoko karpan ipinitako erakustokietan askotariko artisau-lanak erakutsi eta salduko dituzte; eta bigarren eskuko objektuak eskuratzeko aukera ere egongo da. Azoka 10:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, antolatzaileek azaldu dutenez. Guztira 23 postu jarriko dituzte. Eguerdian, Iurretako Bizio ekoizleek parrillan prestaturiko ogitartekoak jateko aukera ere egongo da, Orekarte dinamikaren sustatzaileek jakinarazi dutenez.

Artisau-lanak erakutsi eta salduko dituzte; eta bigarren eskuko objektuak eskuratzeko aukera ere egongo da

Baserriko produktuen azokak dozena bat ekoizle batuko ditu Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Behi gazta, txahal okela, marmelada ekologikoak, kontserbak, garagardoak, pastelak eta gozoak, ogia, oilakia, ahatekia, eztia zein ahuntz gazta. Domeka honetan baserriko produkturik onenak eskuratu daitezke Garaiko plazan. Udalak, Elikatu Durangaldea dinamikak eta Urkiola Landa Garapenak azoka antolatu dute. Dozena bat ekoizleren produktuak eskuratu ahal izango dira herriko plazan. Eskualdeko produktuak gehienak, baina baita kanpokoak ere. Azoka 11:00etan zabalduko dute eta Gabonen testuinguruan antolaturiko egitarauaren zati da. Udalak beste ekitaldi bi ere antolatu ditu astebururako. Gaur, Felix Mugurutzak Gabonetako herri ohiturei buruzko berbaldia emango du. Udaletxean izango da, 18:30ean. Bihar musika emanaldia egingo dute Elizabarrin. 18:30ean hasiko da.

Baserriko produktuen azokaren iazko edizioa.

Osasun gida

Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Proktologia
PSE: 16/22

prōktós.clinic

Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

Odontologia
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangon

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

Optometria
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

• Optiometrian teknika aintzindariak
• Kontaktologia • Haurren ikusmena
• Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
• Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk.147
Ainhoa Elorza
kol.zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Odontologia
PSE: 145/13

RPS: 145-13

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e.etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa, barizeak, tatuajeak behin betiko kentzeko laserra.. Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaitzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

San Martin ermitako teilatua konpontzeko salda Gaztelun

Borondatearen truke salda banatu eta Gazteluko produktuekin zozketa bat egin dute. Asteburuan ere egingo dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domeka goizean Abadiñoko Gaztelua auzoan oinez zein bizikletan ibili zirenek salda beroa hartzeko aukera izan zuten. Eta hemendik aurrera astebururo egongo da horretarako aukera.

Gazteluarrek eurek prestatu zuten salda eta auzoko autobus geltokian postutxoa ipini zuten, lehenengoz, handik pasatzen zirenei salda borondatearen truke banatzeko. Ekimenak helburu bat du. "Gaztelutik pasatzen direnei salda ematen gabiltza, borondatearen truke. Jasoriko diruagaz San Martin ermitako teilatua konpontzea da gure asmoa. Ea denon artean zeozer egitea lortzen dugun", adierazi dute Gazteluko auzotarrek. Gazteluko produktuen zozketa bat ere egingo dutela jakinarazi dute ekimenaren bultzatzaileek.

Gazteluko auzotarrak.

Atxondoko Udalak etxebizitza bat utzi dio Mankomunitateari

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondok etxebizitza bat utzi dio Mankomunitateari, gizarte helburuetarako erabili dezan. "Udal modura oso garrantzitsua iruditzen zaigu lorturiko akordioa; izan ere, zalantzarik barik, Mankomunitateak oso Gizarte Zerbitzu garatuak ditu, eta orain erabiltzen ez den etxebizitza hori behar den moduan kudeatzen jakingo du", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

Ezkerretik hasita, Crespo, Azkarate, Elkoroiribe eta Aranguez.

Domekan, abenduak 18, migratzaileen nazioarteko eguna ospatuko dute Atxondon

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduaren 18an migratzaileen nazioarteko eguna ospatuko dute Atxondon. 11:00etan emango diote hasiera egunari, mahai-inguru batekaz. Bertan Aita Mariko kideak, Zaporeak elkartekoak eta Irungo Harrerakoak egongo dira. Frontoian umeentzako tailerrak egongo dira, 13:00etan Batukandra batukada taldeak eta 14:30ean bazkari herrikoia egongo da. Astoturferren kontzertuagaz emango diote amaiera egunari, 16:00etan. Izena emateko: 602 294 990 Whatsappez eta 652 707 140 Telegramez.

Migratzaileen alde eginda dagoen muralaren argazkia.

Igorreko Rekalde harategiak irabazi du Buzkantz Jaiko odoloste txapelketa

Herritarrek erabaki dute zein den odolosterik onena. Botoen %34,8 jaso ditu

Buzkantz Jaiko sari banaketa.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon egin dute Buzkantz Jaiaren barruko odoloste txapelketako sari banaketa. 2022ko odolosterik onena Igorreko Rekalde harategiak egin du. Igorreko harakinak bigarrenez parte hartu du lehiaketan. "Oso pozik gaude. Azken batean, sari hau errekonozimentu bat da", azaldu zuen prentsaurrekoan Aitziber Egidazuk, Fernando Rekalde harakinaren emazteak. Bestalde, udaletik txapelketaren balantze positiboa egin zuten. "Eskerrak eman gura dizkiegu harakinei, Merkatari Elkarteari eta Iturrizoro elkarteari. Baita Buzkantz Jaian parte hartu duten elkarte, taberna eta herritarrei ere", azaldu zuen Alazne Mendizabal zinegotziak.

Mañariko denda banaketa-puntu modura erabiliko dute sasoiko barazkien ekoizle batek eta Durangoko arraindegi batek

Eskaerak telefonoz egin eta asten behin dendan entregatzen dituzte. Kantabriko arraindegiagaz eta Bejondeizula barazki ekoizleekin ekin diote proiektuari

Jon Bereziartua eta Alazne Intxauspe euren ortuko barazkiekin eta lantzen dituzten kremekin, astelehenean Mañarian egindako aurkezpenean.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko denda zabaltzeko lehenengo saiakerak huts egin zuen eta harrezkero udalak ez du lortu ardura hori hartu gura duen inor. Hori dela eta, gaiari beste ikuspegi batetik heldu diote, gune horri erabilera bat emateko. Ekoizleei eskaintzen hasi dira, euren produktuen banaketa-puntu modura erabili dezaten.

Oraingoz, negozio bigaz hasi dira. Alde batetik, Durangoko Kantabriko arraindegiagaz. Zerbitzu hau azaro amaieratik dago martxan. Eskaerak 609 204 568 telefonoan (edo whatsappez) egin behar dira eta banaketak bariku arratsaldetan egiten dituzte. Ordainketa tokian bertan edo txartelagaz egin daiteke. Datorren urtera begira, bariku arratsaldeetan arraina dendan bertan saltzea baloratuko dute.

Alazne Intxauspe eta Jon Bereziartua nekazariak ('Bejondeizula nekazaritza iraunkorra') ere prest daude antzeko zerbitzua eskaintzeko. Astelehenean euren negozioaren berri eman zuten dendan bertan, eta hainbat herritar batu zen azalpenak entzutera.

Mañarian bizi dira eta Iurretako Oromiñon daukate ortua. Barazki ekologikoak ekoizten dituzte, sasoian sasoikoak, eta arlo horretako ziurtagiria dute. Barazkiekin kremak ere egiten dituzte. Durangon, Zornotzan eta Berrizen zuzeneko salmenta lantzen dute bezeroekin, eta prest daude Mañarian datorren astetik bertatik zerbitzua eskaintzeko.

Kontsumo taldeen bitartez funtzionatzen dute. Whatsapp taldeak sortzen dituzte interesa dutenekin. Produktuen gaineko informazioa emateko nahiz eskariak egiteko balio du. Interesdunek telefono honetara idatzi dezakete: 699 264 906.

Hainbat aukera dago produktuak eskuratzeko. Esaterako, otzaren sistema. Bezeroak garaian garaiko sei-zortzi barazkiz osaturiko otzara bat jasotzen du, berak gura duen maiztasunagaz. Otzara honen prezioa 12,5 euro da. Horrez gainera, bakoitzak gura dituen produktuak hautatzeko aukera ere badago.

Inguruko ekoizleen produktuak ere eskaintzen dituzte, batez ere Etartie egitasmoan dauden ekoizleenak: ogia, esnekiak, arrautzak, haragia, kontserbak...

Printzipioz, bariku eta zapatuetan jasoko lituzkete eskaerak, eta Mañariko dendan astelehenetan egongo dira, 19:00etatik 20:00etara.

Mallabiko aurrekontuetan, inbertsio nagusiak Zubitegira eta aterpe zaharra berrurbanizatzera

2023ko aurrekontuen zenbateko osoa aurtengoa baino %14,4 handiagoa izango da

MALLABIA • J.D.

Azaro amaieran egindako osoko bilkuran 2023ko aurrekontuak onartu zituzten Mallabian, EAJren aldeko sei botogaz eta EH Bilduren abstentzio bigaz. Aurtengo zenbateko osoa 2.689.849 eurokoa da, iazkoa baino %14,4 handiagoa.

Udalkutxaren bitartez 1.099.089 euro jasoko dituzte. Horrez gainera, zeharkako zergen partida 400.000 eurora handitu da, Eibar futbol taldea egiten dabilen kirol hiriaren garapena aurreikusita.

391.069 euroko inbertsioak aurreikusi dituzte 2023rako. Kopuru horren zati bat Zubitegi parkea berrizteko izango da, zaharkituta dago eta. Gainerakoa Antsoaga aldeko barandak berritzearen hirugarren fasea egiteko, parkeko aterpe zaharra berrurbanizatzeko eta toponimia kartelak ipintzeko erabiliko dute. Bestetik, natura-ondarea babestea eta berreskuratzea da aurrekontuen "ardatzetariko" bat. Horretarako, informazio panelak ipiniko dituzte, Osmako perratokia leheneratuko dute, bide

"Iraunkortasunaren aldeko apustua" eginez auto elektriko bat erosiko dute, 40.000 eurogaz

osasungarri berriak berreskuratuko dituzte (Mallabarrena-Osmako pista, esaterako), eta Oizko tumuluak mantenduko dituzte. Horrez gainera, "iraunkortasunaren aldeko apustua" egiten jarraitu gura dutenez, 40.000 euroko diru atala gorde dute udal auto elektriko bat erosteko.

Arlo sozialean, 30.000 euro Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako erabiliko dituzte. Arlo honetan %20ko igoera egon dela nabarmendu dute. Horrez gainera, hainbat diru laguntza mantenduko dute; besteak beste, berdintasun arlokoa, herriko elkarteena eta jaietakoa. Bestalde, 18.500 euroko atala gorde dute gimnasioko makineria berritzeko.

"Herritarren ongizatea bermatzea eta euren bizi kalitatea hobetzen jarraitzea dira 2023ko aurrekontuen helburu nagusiak, eta baita udalerri aurreratu bat eraikitzen jarraitzea ere, eremu sozial, ekonomiko eta jasangarrian, zerbitzu guztiak mantenduz eta hobetuz", azaldu dute gobernu taldekoek.

Gobernu taldearen (EAJ) aldeko botoekin onartu dituzte aurrekontuak; EH Bildu abstenitu egin da.

EH Bildu abstenitu egin da. "Iaz eta orain urte bi lez, aurten ere ez digute deitu aurrekontuei buruz berba egiteko. Batzarra antolatzeko ekimena gobernu talderarena izan behar dela uste dugu. Ez gaude aurrekontuen kontra, baina hainbat gauza beste era batera planteatuko genituen. Esaterako, ados gaude Zubitegin parkea egiteagaz, baina beste era bateko parkea izatea gura genuke", adierazi du Aitor Loiola zinegotziak.

Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketaren arabera, euskararen kale erabilera %11 igo da Zaldibarren hamabost urtean

Soziolinguistika Klusterrak egin du neurketa, udalak eskatuta; hamarretik hiru zaldibartarrek euskara darabilte kalean

32 orduko neurketa egin dute Zaldibarko kaleetan.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Hamar zaldibartarretik hiruk euskaraz egiten dute kalean; hamabost urte atzera eginez gero, datu hori hamaika puntu igo da ehunekotan. Hau da, 2006an, Linguistika Klusterrak Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa egin zuenean, euskarazko elkarrizketak %19 ziren eta, azkeneko neurketen arabera, %31ra igo da kopuru hori. Bilakaera "goranzkoa bakarrik ez, konstantea" ere izan dela azpimarratu du Olatz Altuna klusterreko teknikariak. Udalak eskatuta egin du neurketa klusterrak, eta, guztira, 32 orduko neurketa egin da Zaldibarren; hau da, 150 bat elkarrizketa entzun dira, eta, guztira, 3.100 solaskide aditu dituzte. 2011n eta 2016an egin ziren beste neurketa biak, eta emaitza hauen arabera euskararen kale erabilera %21,7koa eta %27,6koa zen, hurrenez hurren.

Bestelako ondorioei erreparatuta, euskararen biziberritzean genero rolak duen eragina azpimarratu du Altunak. "2006ko neurketan, gizonek emakumeek baino gehiago egiten zuten kalean euskaraz, baina gainerakoetan emakumezkoak gehiago izan dira. Eta gazteen kasuan ere horrela izan da. Ez da gehiegi ikertu horren inguruan, baina potentziala du. Ikusten ari gara, ez kale erabileran bakarrik, Euskaraldian ere emakume gehiagok eman dutela izena, edo alfabetatzean ikasleen gehiengoa emakumea dela", azaldu du Altunak. "Eta hau Euskal Herri osoan ikusten ari garen fenomenoa da". Horrez gainera, %31 horren gainetik haur, gazte eta "heldu gazteen" taldeak (25etik 44 urtera arte) daudela nabarmendu du. "Hortik aurrera arrakala bat dago. Aztertu beharko litzateke, baita, zergatik adin tarte desberdinetako pertsonak nahastean euskararen erabilerak behera egiten duen. Deigarria da, aldaketa hori haurren artean ere gertatzen delako", gaineratu du.

Erreferentzia gutxi inguruan

Zaldibarko datuak Durangaldekoekin alderatzeko, ikerketa gehiago beharko liratekeela ere azaldu du Altunak: "Interesgarria litzateke eskualdeko joera zein den ikusteko, jakina, baina horrek ordu askoko neurketa eskatzen du". Hala ere, ezagutzen diren datuekin bestelako hausnarketak egin daitezkeela iritzio dio; adibidez, herritarren gaitasuna. "Korrelazio bat dago: zenbat eta euskaldun gehiago egon, erabilera handiagoa da. Baina baditugu gaitasun maila antzerakoa duten herriak kale erabilera ezberdinekin. Zerk eragiten du hori?", hausnartu du Soziolinguistika Klusterreko teknikariak.

Euskararen biziberritzean genero rolaren garrantzia aztertu dute; emakumeek gizonek baino gehiago egiten dute euskaraz

Berrizko Udalak zerga guztiak izoztu ditu, hirugarren urtez jarraian

Berrizko Udalak hirugarrenez izoztu ditu zergak; "ekonomia suspertzen" jarraitzeko hartu dute erabakia

BERRIZ • A. M.

Ohar baten bitartez, Berrizko Udalak azaldu du 2023ko Ordenantza Fiskalak hirugarren urtez jarraian izoztea erabaki duela. Horrela, ez dira igoko Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (EJZ), Ibilgailuen Zerga eta Gainbalioaren gaineko Zerga, udal tasak eta prezio publikoak. "Hirugarren izozketa orokorra da eta tokiko administrazioaren erabakiak pandemiaren ondoren ekonomia suspertzen jarraitzeko beharrizanari erantzuten dio; Ukrainako gerrak energia kostuetan eta inflazioan duen eragina arintzeko ere baliagarria da", azaldu dute.

Bestalde, urtarrilaren 14ra bitartean Berrizburu kiroldegiko ikastaroetan izena emateko aukera egongo da. Udalak ohar batean azaldurikoaren arabera, kirol programa zabala egongo da aukeran: igeriketa ikastaroak, aquagym, zumba, pilates, cycling, tonifikazio ikastaroak eta adineko pertsonentzako ur jolasak. Ikastaroak urtarrilaren 9an hasi eta martxoaren 31n amaituko dira. Plaza kopurua gaindituz gero, zozketa bidez banatuko dira. Izena emateko, 946826244 telefonora deitu beharko da, edo *kontrol@berriz.eus* helbide elektronikora idatzi.

Berrizko Udalak hirugarren urtez hartu du erabaki hori.

Izurtzako aurrekontuetako inbertsio nagusia, argiteria sarea hobetzeko eta herrigunerako espaloia egiteko

Udal arduradunek nabarmendu dute herritarren "ongizatea hobetzeko aurrekontuak" direla aurtengoak

IZURTZA • **JOSEBA DERTEANO**

Izurtzan, 2023ko udal aurrekontuak onartu zituzten azken udalbatzarrean, aho batez, EH Bilduren (gobernu taldea) eta EAJren aldeko botoekin. Aurten 603.474 eurotan parekatu dituzte sarrerak eta irteerak. Datorren urteko inbertsio nagusiak argindar sarea berrizta-tzea eta herrigunerainoko espaloi zatia amaitzea izango dira. 128.000 euro, guztira.

Haizeteen ondorioz argindar sarea toki batzuetan txarto dagoela eta batzuetan argirik barik geratzen direla azaldu du Lorea Muñoz alkateak. "Horregaitik, apurka-apurka, txartoen dauden guneak konpontzen joango gara", esan du Muñozek. Horregaz batera, Mañariko noranzkoan eta errepideko ezkerreko aldean orain urte bi egindako espaloi zatia herrigunerainо luzatu gura dute.

Beste 40.000 euro Txakurzuloko eraikina eraberritzeko erabiliko dituzte. Gaur egun, udalak enpresa bati alokatuta dauka eraikin hori.

"Ongizatera" begira

"Herritarren ongizatea hobetzera begira" egindako aurrekontuak direla nabarmendu du Lorea Muñoz alkateak. EAJko Batirtze Motak eta Aroa Gonzalezek euren baiezkoa arrazoitu dute. "Aldatu diren diru atalak beharrezkoak dira herriko gastuetarako, eta proiektu berrietarako dirua herritarrek parte hartze foroetan eskatutakoa da",

Aurtengo aurrekontuak aho batez onartu dituzte.

Itziar Zabalak Otxandioko rokodromoa eta bere eredua goraipatu ditu

Eskalatzaile dimoztarrak Otxandioko rokodromo berriaren inaugurazioan parte hartu zuen joan zen astean, eta azpiegitura berria zein bera kudeatzeko eredua "asko" gustatu zitzaizkion

OTXANDIO • **J.D.**

Joan zen barikua eskaladari emaniko eguna izan zen Otxandion. Lehenengo, Itziar Zabalak berari buruzko *Amagana* ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen Mainondon, eta segidan pilotalekura igo ziren han egindako rokodromo berria inauguratzera. Zabalak bertatik bertara ezagutu zuen azpiegitura berria eta "asko" gustatu zitzaion. "Oso aproposa da eskaladaren munduan lehenengo urratsak eman gura dituenentzat edo sakondu gura duenarentzat", esan zuen. Azpiegitura kudeatzeko eredua ere goraipatu zuen: "Denentzat dago zabalik. Herritarregan konfiantza erakusten du horrek.

Otxandioko pilotalekuan dagoen rokodromo berriko irudia. **OTXANDIOKO UDALA**

anboto kide

Anbotokideen txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK

Alcampo supermerkatuaren eskutik otzara eder bat.

**Anbotokide guztien artean zozkatuko da.*

Maluta zirku galarako sarrera bikoitz bat. San Agustinen abenduaren 27tik 30era bitartean.

**Eman izena gure webgunean.*

Urteko azken bertso saiorako 2 sarrera bikoitz. Abenduaren 30ean Plateruenan.

**Eman izena gure webgunean.*

Jai Alai jairako bi sarrera bikoitz. Abenduaren 30ean Gernikako Jai Alai frontoian.

**Eman izena gure webgunean.*

IRABAZLEAK

Pintto pintto antzerki ikuskizuna:
Aitziber Egidazu Elorza

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan! >

Durangaldean dauden gabeziei aurre egiteko eskatuko dio EH Bilduk Osasun Sailari

EH Bilduko kideak kezkatuta daude eskualdeko lehen arretaren egoeragaitik

DURANGALDEA• M.Z.

EH Bilduko Durangaldeko ordezkariek kezka azaldu dute eskualdeko lehen arretaren egoeragaitik, eta Osasun Sailari bilera eskatu diotela jakinarazi dute. "Legebiltzarrak Galdakao-Barrualdea ESIko osasun beharrizanak aztertu eta neurriak planifikatzeko konpromisoa hartu zuen otsailean", azaldu dute EH Bilduko kideek prentsa ohar batean.

Lanketa horien barruan, Mañariko, Izurtzako, Elorrioko eta Durangoko udalek herrietako osasun beharrizanak aztertu eta antzematen zituzten beharrizanen eta gabezien zerrenda bidali zioten Osasun Sailari. "Baina ordutik ez dugu Osasun Sailaren partetik erantzun edo bilera deirik jaso. Bien bitartean, Durangaldeko lehen arretaren osasun gabeziek bere horretan jarraitzen dute. Horrela frogatu zen abenduaren 5etik 11rako zerbitzu askotan. Herri askotan murriztu egin ziren zerbitzuak, edo beste herri batzuetara bideratu zituzten", gaineratu dute.

Hori horrela, Gabonak ate joka daudela ikusita eta gabeziez berba egiteko asmoz, Durangaldeko EH Bilduko eskualdeko ordezkariek bilera bat egitea eskatuko diote Osasun Sailari.

Otxotorena, Abanzabalegi, Garrastatxu eta Muñoz.

Durangaldea asteon

Konorte, Ainke eta DJ Nausi zapatuan, abenduak 17, Atxondoko Gaztetxean

ATXONDO Azken urteetan itxita egon eta gero, Atxondoko Gaztetxeak ateak zabalduko ditu zapatuan, 22:00etan. Gazteek egitarau zabala antolatu dute eta afaldu eta gero kontzertua egongo da, 22:30ean. Konorte eta Ainke taldeek joko dute. Horien ondoren, DJ Nausiren txanda izango da, 01:00etan.

Berbarok antolatzen duen urteko azken bertso saioa Plateruenera bueltatuko da

DURANGO Abenduaren 30ean izango da urteko azken bertso saioa, Plateruenean. Berbarok antolatzen du urtero, eta aurten bertsolari hauek izango dira bertan: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Sustrai Colina, Alaia Martin eta Aitor Bizkarra. Gai jartzaile lanetan Unai Iturriaga arituko da. Saioa 22:00etan izango da. Sarrerak agortu egin dira.



Urgozo kiroldegia eraikitzeko obra lehiaketa publikora atera dute Zornotzan

ZORNOTZA Zornotzako Udalak lizitaziora atera ditu Urgozo kiroldegi berria eraikitzeko lanak. 6.500.000 euroko aurrekontua ezarri du horretarako, eta lanek 20 hilabete irautea aurreikusi dute, hasten direnetik. Azpiegitura berria Betarraganen egongo da. 3.574 metro karratu izango ditu eta, kirol jardueretara mugatu barik, udalak "ekitaldi kultural eta sozio-ekonomikoak" ere egin gura ditu bertan. Hala nola kontzertuak eta azokak. Udalak "ikasle, klub eta elkarteentzat udalerrian kirola eta estalpeko jarduerak egiteko erreferentziazko zentro bat sortzea" gura du bertan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ

Olentzero eta Mari Domingi maiteak,

Jakin badakigu egunotan oso lanpetuta zabiltzatela. Gutun honetan eskatzera gatozenak helburu oso argia dauka: durangarron bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea.

Hasteko, gure herriko benetako beharrizanak ezagutzen dituzten pertsonak nahi ditugu udal gobernuan. Egunerokoan hain beharrezkoak diren ekintza txikiak gauzatzeaz gain, epe luzera ausardiaz begiratzeko gai diren pertsonak behar ditugu. Durangorako estrategikoak izan daitezkeen proiektu bideragarrien aldeko apustua egitera ausartzen diren pertsonak. (Proiektu horien adibide gisa, Durangoko ospitalea.....)

Jarraitzeko, etorkizuna duen Durango bat nahi dugu, iraunkorra, irisgarria, kalitatezko enplegua sortzen eta mantentzen duena, gazte edota ez hain gazteei prestakuntza eskaini ahal diena, gertuko merkataritza bultzatzen duena, jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzen dituena... azken finean, bizi-kalitate aparteko Durango erakargarri bat nahi dugu.

Eskariekin amaitzeko, eta aipatutako guztia aurrera eramateko, hona hemen azkena: alde uztea azken legegintzaldi honetan oposizioak jasan behar izan dituen errespetu faltak, gardentasun ezak eta desinformazioak.

Durangoko EAJ-PNVn argi daukagu ezinbestekoak direla ezberdinen arteko akordioak, gardentasuna eta etengabeko elkarrizketak herritarron bizikidetza eta elkarlana sustatzeko. Horiek baitira durangarron ongizatea hobetzen ahalbidetuko duten baloreak, gureak: konpromisoa, ahalegina, irmotasuna, elkarlana eta gauzak ondo egiteko nahia.

Gabonak 2022


Pilatu aurrezkia
Gozatu Gabonak
Elkartzearen prezioa igotzen denean,
laguntza pixka bat ez daforkigu inoiz gaizki.
EROSKI
zurekin

Gabonak 2022

ABADIÑO

Abenduak 17, zapatua

16:00 Ginkana solidarioa (4-16 urte). Angelman sindromea. Zelaietako Herri Eskola
17:30 Txokolatada. Zelaietako Herri Eskola

Abenduak 18, domeka

11:00-15:00 Neguko azoka. Abadiñoko emakume sortzaileak, artisauak eta herriko ekoizleak. Traña plazan. (Euria bada eskolako aterpean)
9:30-14:00 Gabonetako xake txapelketa. Traña-Matienako frontoian

Abenduak 23, barikua

17:00 Gabonetako haurrentzako apaingarri-tailerra. Traña plazan.

Abenduak 24, zapatua

11:30 Gabonetako lasterketa (0-10 urte). Muntsaratz.
11:45 Gabonetako lasterketa (11-15 urte). Muntsaratz.
12:00 Gabonetako lasterketa (16-100 urte). Muntsaratz.
17:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira. Traña-Matiena.
18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira. Txanporta. (Ibilbidea: herri osoa, Traña-Matienan hasi eta Txanporta plazan amaitu).
17:30 'Adarrak' ikuskizuna. Zirkozaurre. Muntsaratz.

Abenduak 26, astelehena

19:30 Concertante a Quatro: organoa lau eskutara. Atsuko Katanogaz eta Pablo Marquezegaz. San Trokaz eliza

Abenduak 27/28/29

11:30 - 13:30 / 16:00-20:00 Umeen Gabonetako Jolaslekua. Probalekuan (0-9 urte) eta Traña-Matienako frontoian (10 urtetik aurrera).

Abenduak 30, barikua

19:00 'Irabazi' Jon Plazaola. Errota Kultur Etxea.

Urtarrilak 2, astelehena

17:00 'Pintto Pintto' Anita Maravillas. Errota Kultur Etxea.

Urtarrilak 3, martitzena

19:00 XVII. Gospel Zikloa: 'The Spolem Girls'. Errota Kultur Etxea

Urtarrilak 5, eguena

18:00 - 20:00 Erregeen kabalkada.
(Herri osoan, Muntsaratzen hasi eta Traña-Matienan amaitu)

ATXONDO

Abenduak 27, martitzena

17:30 Ipuin kontaketa. Nerea Ariznabarreta. Liburutegian.

Abenduak 31, zapatua

11:30 - 15:00 Puzgarriak, Apatako frontoian.

BERRIZ

Abenduak 24, zapatua

09:30 Mari Domingiren eta Olentzeroren irteera auzoetara. Olakueta plazatik
17:30 Mari Domingiren eta Olentzeroren irteera probalekura. Udaletxetik.

Abenduak 27, astelehena

19:00 Kontzertua. San Juan Ebanjelariaren elizan.

Abenduak 28, martitzena

19:00 "Kobre3" zirkua. Kultur etxean.

Urtarrilak 2, astelehena

Goizean. Gabonetako eskulanak umeentzat.
Arratsaldean. "Ihes gela beldurgarria" (12 urtetik gora-koentzako)

Urtarrilak 4, eguaztena

12:00-13:30 Puzgarriak. Olakueta frontoian. **16:00-19:00 Puzgarriak**. Olakueta frontoian.

Urtarrilak 5, eguena

17:30 Erregeen kabalkada, eta ostean txokolate jana. Komentutik Olakueta plazara.

ELORRIO

Abenduak 17, zapatua

12:00 Kalejira: Berrio-Otxoa Abesbatza, Fanfarrixo eta Zaldibarko Korala
16:00 Herri kirolak
18:00 Bizkaiko goma sokatira txapelketa (neskak eta mutilak)

Abenduak 18, domeka

12:00 Santxibiri herri lasterketa (Haurrak)
12:30 Santxibiri herri lasterketa (Helduak)
17:00 'Laika' familientzako antzerkia. Arriolan.

Abenduak 23, barikua

9:30 Herri eskolako umeen Santamas azoka, bertsoak eta Gabon kantak. Herriko Plazan.
10:30 Artisautza azoka Eixuk antolatuta. Plazako frontoian.
17:30 'Go!azen 9.0' gaztetxoentzako kontzertua. Arriolan.
19:30 'Go!azen 9.0' gaztetxoentzako kontzertua. Arriolan.

Abenduak 24, zapatua

18:00 Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria Besaide Dantza Taldeagaz.

Abenduak 25, domeka

11:30 Meza, Basilikako koroagaz.

Abenduak 27/28/29 eta Urtarrilak 2/3/4

1**1:30-13:30 / 17:00-20:00 Haur parkea**. Hilario Azkarate frontoian.

Abenduak 30, barikua

19:30 Gabon kantak, Bilboko Rossini Koral Elkartearen eskutik.

Abenduak 31, zapatua

9:00 Mendi irteera. Erdellak antolatuta.

Abendu osoan

'Begiradak' argazki erakusketa kolektiboa. Elorrioko Argazki Taldea. Iturri Kultur Etxean.

Urtarrilak 1, domeka

9:00 Mendi irteera Erdellara.

Urtarrilak 5, eguena

18:30 Errege Magoen etorrera. Elizpea

GARAI

Abenduak 16, barikua

18:30 'Gabonetako herri ohiturak' berbaldia Felix Muguruzaren eskutik. Udaletxean.

Abenduak 17, zapatua

18:30 'Euskal kantuak eguberri atarian' musika emanaldia Elizabarrin.

Abenduak 18, domeka

11:00 Baserriko produktuen azoka. Plazan.

Abenduak 20, martitzena

18:30 Garaiko toponimia berrituaren maparen aurkezpena. Udaletxean.

DURANGO

Abenduaren 16tik 18ra

1**1:00 - 14:30 / 16:30 - 20:00 Eixu artisau elkartearen azoka**. Landako Gunea.

Abenduak 17, zapatua

10:00 Azoka Andra Marian, Inurri Eskaut Taldea.
17:00 Txokolatada Madalenan, Auzo Alai elkartearen eskutik.
17:30 Bidelagun musika taldea, Kriskitin eta Eskola Partaideak Madalenan, Auzo Alai elkarteak antolatuta.
17:00 - 19:00 Umeentzako jolasak eta tailerrak Andra Marian, Inurri Eskaut Taldeak antolatuta.
13:00 Tabira Musika Bandaren kontzertua. Plateruenean.
19:00 Meza Andra Mariko elizan. Inurri Eskaut.
20:00 Otzararen zozketa Madalenan. Auzo Alai elkartea.
21:00 Gabon zaharreko kanpaiak eta DJ musika Madalenan. Auzo Alai elkartea.

Abenduak 18, domeka

13:00 Gabonetako txistu kontzertua Jaizale elkartearen eskutik. Santa Anako elizan.
19:00 Durangoko Orfeoia, Doinuzahar eta Otxandioko Oihandi abesbatza. Gabonetako kontzertua. Andra Mariko basilikan.

Abenduak 23, barikua

20:15 Organo eta txistu kontzertua Arandoño kultur elkartearen eskutik. San Frantzisko elizan.
22:00 Alerta taldearen kontzertua Plateruenean.

Abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra

Izotz pista Landako Gunean.

Abenduak 24, zapatua

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira Fray Juan Zumarraga institututik hasita. Ibilbidea: Institutua, Ermodo, Zumalakarregi eta Ezkurdiko kioskoa. Euria bada, Landako Gunean.

Abenduak 26, astelehena

16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. 'Urteak bete, abenturak bizi!' ikuskizuna. Landako Gunean
19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Landako Gunean. Sarrerak Arte eta Historia Museoan, Intxaurrondoko gazte eta kultur gunean eta Kutxabanken.

Abenduak 27, martitzena

16:30 Jolas eguna Tabira parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.
18:30 Perculights kaleko musika animazioa kaleetan zehar. Antolatzailea: Dendak Bai.

Abenduaren 27tik 29ra

11:30 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Txu Txu Trena Elkartegiaren aurrean. Antolatzaileak: Dendak Bai.

Abenduak 28,29, 30 eta Urtarrilak 2, 3, 4

11:00-14:00 eta 16:00-20:00 Umeen Gabonetako Parkea. Landako Gunean.

Abenduak 30, barikua

16:30-19:30 Jolas eguna Muruetatorren. Euria bada, Landako Eskolan.

18:00 Dantzaro: Patxi eta Konpainia. Plateruenean.
20:00 Organo eta txistu kontzertua Aitor Olea eta Silboberrigaz. Andra Mariko basilikan. Antolatzailea: Arandoño kultur elkartea.

Urtarrilak 5, eguena

18:45 Errege Magoen kabalkadaren hasiera Fray Juan Zumarraga institututik. 19:15ean Ezkurdin; 19:35 Udal plazan; 20:15 Santa Anan; 21:15 San Fauston.

Urtarrilak 6, barikua

18:00 JAED elkartearen zozketa benefikoa Kalebarrian, elkartearen lokalean.

Urtarrilak 7, zapatua

11:00-13:00 Jolas eguna San Fausto auzoan. Euria bada, San Faustoko kiroldegian.
22:00 Astoturfer taldearen kontzertua. Plateruenean.

Urtarrilak 8, domeka

19:00 Bogoroditsie abesbatzaren kontzertua. Gabonetako kontzertua. San Frantzisko elizan.

OTXANDIO

Abenduak 17, zapatua

17:00 Astoaren bila ibilbidea, eskola aurrean. Haurrek **Olentzerori eta Mari Domingiri gutuna helarazteko ibilbide magikoa** antolatu du Guraso Elkarteak.

Abenduak 23, barikua

20:00 Gabonetako kontzertua, Santa Marina elizan. Otxandioko Udal Bandaren kontzertua.

Abenduak 24, zapatua

18:30 Olentzerori ongi etorria, plazan. Ostean, ardo beroa eta gaztain erreak Pasealeku jubilatu elkartearen eskutik.

Abenduak 31, zapatua

09:30 Arangixora irteera, autobus geltokitik. Mirugainek eta Mainondo guraso elkarteak antolatuta.
18:00 Ume, gazte eta helduen herri krosa, plazan. Gazte Asanbladak eta MKEak antolatuta.
20:00 Presoen aldeko elkarretaratzea, plazan.

Urtarrilak 3, martitzena

17:00 'Gezur gehiegi' Txoborro magoaren magia saioa, Mainondon. Mainondo guraso elkarteak antolatuta.

IURRETA

Abenduak 16, barikua

09:00-12:30/16:30-19:30 Iurretako Elkartasun Azoka, Ibarretxe kultur etxean.
19:00 'Arrazoin bila' (Bego Alabazan), Ibarretxe kultur etxean.
Iurretako gutun eta postal lehiaketan parte hartzeko azken eguna, 13 urtetik beherako umeei zuzenduta. Ibarretxe kultur etxean. Izen-abizenak, adina eta telefonoa ipini behar dira aparteko orri batean. Sari banaketa urtarrilaren 5ean, 12:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Abenduak 19 eta 20, astelehena eta martitzena

20:00 Abenduko koplen entseguak. Iurretako plazan.

Abenduak 23, barikua

Olentzerori gutunak. Eskolako umeek euren gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe kultur etxera. Bestalde, eskolekin hitzartutako magia eta txotxongilo saioak egongo dira.
10:15 Txotxongiloak Rosa Maria Martinezen eskutik 2-3 urteko umeentzat
10:45 Txotxongiloak Rosa Maria Martinezen eskutik 4-5 urteko umeentzat

11:00 Tor Magoa, 1., 2., 3. eta 4. mailako neska mutilei zuzenduta.
10:00 Abendu koplak abestuko dira etxerik etxe Aita San MIgel plazatik irtenda.
17:00 'Oihaneko tirabirak' haurrentzako (3-5 urteko umeentzat) ipuin kontalaria: Ane Gebara. Ibarretxe kultur etxean. Bigarren saioa egongo da, 17:45ean (sei urtetik gorako umeentzat).

Abenduak 24, zapatua

12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera. Aita San Migel plazan. Ondoren, trikitilariek girotutako kalejira. Zatoz baserritarrez jantzita.

Abenduak 27, 28, 29

1**1:30-13:30/16:00-20:00 Txu Txu trena.** Korreoseko geltokian.

Abenduak 27, 28, 29 eta 30

17:00-20:00 Gabonetako parkea (ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak), Kepa Arroitajauregi frontoian.

Urtarrilak 1, domeka

09:30 Urtebarri eguneko Gallandara igoera, Iurretako plazan taldean irteteko.
11:00 Tontorrean

Urtarrilak 5, eguena

11:00 'Urteberri! Zaharrak berri!' ipuin kontaketa (3-5 urteko umeentzat), Miriam Mendoza ipuin kontalariaren eskutik, Ibarretxe kultur etxean. Bigarren saio bat egongo da, 12:00etan (sei urtetik gorakoentzat).
17:30 Errege Magoen kabalkada, Askondon. Harrera egin bitartean txokolatea eta elkartasun opila banatuko dituzte.

Gabonak - Zaldibar

ABENDUAK 22

Mari Domingiri eta Olentzerori idatzitako gutunak. Sarien zozketa liburutegian.
21:30ean II. EMAKUMEEN OLAZAR PILOTA TXAPELKETA (4½)

ABENDUAK 24

BADATOZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA!
12:00etan HARRERA Olazar plazan.
12:30ean ONGI ETORRI jaialditxoa Zaldua plazan. Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

ABENDUAK 26 – SAN ESTEBAN EGUNA

HAUR ANTZERKIA: OLENTZERO KUTTUN
16:30ean liburutegi zaharrean. 3–5 urteko umeentzat.
17:00etan 6–9 urteko umeentzat.
18:00etatik aurrera eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.
18:30 - 20:30 Eingo taldearekin kalejira. Aranzamendi kaletik hasita.

ABENDUAK 28 ETA 29 – UMEEN GABONETAKO PARKEA

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Eskolako kiroldegian.

ABENDUAK 31

16:00etan II. EMAKUMEEN OLAZAR PILOTA TXAPELKETA (4 ½) : Finala Jarraian XXIV. OLAZAR PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK.
17:00etan VIII. SAN SILVESTRE LASTERKETA. Irteera udaletxeko plazatik.

URTARRILAK 1 - IGOERA SANTAMARINAZARRERA

10:30ean talde argazkia tontorrean eta hamarretakoa.

URTARRILAK 5 - ERREGEEN DESFILEA

18:30ean Haurreskolan hasita Erregeen kabalkada.



Gabonak 2022

IZURTZA

Abenduak 23, barikua

18:00 Olentzerok opariak banatuko dizkie herriko umeei, erabilera anitzeko lokalean.

MALLABIA

Abenduak 24, zapatua

18:30 Olentzero eta Mari Domingi, plazan. Zaparrada Kultur Elkarteak antolatuta.

Abenduak 29, eguena

19:00 Skimetrajea: 2022 edizioko film labur saituen hautaketa, Kontzejuzarrean. Udalak antolatuta.

Abenduak 30, barikua

10:30 Baserririk baserri gabon eskean. Ibilbidea: Aitxu, Areitio, Osma, Zengotita eta Goita. Mendibil abesbatzak antolatuta.
16:00 Tenis erakustaldia eskolan. Mallabia Kirol Elkarteak antolatuta.
18:00 Bizkaiko eskuz banakako finalerdiak. Herriko frontoian. Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntza.

Abenduak 31, zapatua

16:00 Pilota jaialdia herriko frontoian.
Bakaikoa - Morgaetxebarria / Zabala - Gaskue (Promozioko Binakako Txapelketa)
Jaka - Aranguren / Elordi - Zabaleta (EPELen Binakako Txapelketa)

Urtarrilak 2 / 3

11:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30 Gabonetako haur parkea herriko frontoian.

Urtarrilak 7, zapatua

16:30 Petanka txapelketa jubiletxe ondoan. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkarteak antolatuta.

Urtarrilak 8, domeka

11:00 Multikirola eta txokolatada eskolan. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkartea.
16:00 Bideoa eta bingoa Kontzejuzarrean. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkartea.
18:00 Domino txapelketa Kontzejuzarrean. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkartea.

MAÑARIA

Abenduak 18, domeka

09:00 Etxerik etxe Gabon kantak abestera, plazan. Andra Mari elkarteak antolatuta.

Abenduak 24, zapatua

Arratsaldean Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Andra Mari elkartea.

Abenduak 26, astelehena

17:00-19:00 Belaze baserriko zaporearen eskutik, gazta freskoa egiteko tailerra, herriko dendan. Adin guztietarako.

Abenduaren 26tik 30era

10:00-13:00 Negulekuak. 4-10 urte artekoentzat. Andra Mari elkartea.

Abenduaren 28, eguaztena

17:00 Zinema liburutegi zaharrean. Andra Mari Elkartea.

Abenduak 31, zapatua

10:30 San Silbestre. 8 kilometro korrika edo oinez. Izenematea egunean bertan ala www.kirolprobak.com.

Urtarrilak 5

Arratsaldean, **Hiru Errege Magoen etorrera.**

ZALDIBAR

Abenduak 22, eguena

Mari Domingiri eta Olentzerori idatzitako gutunak. Sarien zozketa liburutegian
21:30 II. Emakumeen Olazar pilota txapelketa.

Abenduak 24, zapatua

12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera. Olazar kalean.
12:30 Ongi etorri jaialdia. Zaldua plazan.

Abenduak 26, astelehena

16:30 'Olentzero kuttun' haur antzerkia (3-5 urteko umeentzat). Liburutegi zaharrean.
17:00 'Olentzero kuttun' haur antzerkia (6-9 urteko umeentzat). Liburutegi zaharrean.
18:00 Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak. Eskolako pilotalekuan.
18:30 'Eingo' taldeagaz kalejira. Dr Aranzamendi kaletik hasita.

Abenduak 28, eguaztena

12:00-14:00 'Gabonetako Haur Parkea'. Eskolako kiroldegian.
17:00-20:00 'Gabonetako Haur Parkea'. Eskolako kiroldegian.

Abenduak 29, eguena

12:00-14:00 'Gabonetako Haur Parkea'. Eskolako kiroldegian.
17:00-20:00 'Gabonetako Haur Parkea'. Eskolako kiroldegian.

Abenduak 31, zapatua

16:00 'II. Emakumeen Olazar pilota txapelketa: finala'. Ondoren, XXIV Olazar pilota txapelketako finalak.
17:00 'VIII. San Silbestre lasterketa". Irteera udaletxeko plazatik.

Urtarrilak 1, domeka

10:30 'Igoera Santamarinazarrera'.

Urtarrilak 5, eguena

18:30 'Erregeen kabalkada'. Haurreskolan hasita.

ZORNOTZA

Abenduak 16, barikua

1**8:00 'Mari Domingiren ipuinak'** ipuin kontalaria Elssie Xalbadorren eskutik. Liburutegian.

Abenduak 17, zapatua

16:00 Gabon kantak. Errumaniako haur komunitatearen Gabonetako topaketa. Zelaietako auditorioa. Antolatzailea: Juravca elkartea.
20:00 'Atzoko eta gaurko klasikoak'. Zornotzako Musika Bandaren kontzertua. Zornotza Aretoan. Sarrera, 3 euro.
20:00 Agur 2022. Gabonetako Gauero berezia. Zelaietako kontzertu gelan.
20:00 Aita Eliseoren omenezko kontzertua El Carmeloko kaperan.

Abenduak 18, domeka

08:00 AIDAEk antolaturiko VIII. Klasikoen Rally Benefikoa. Zubiondon.
12:30 Gabon kantak Larreako elizan.

Abenduak 19, astelehena

19:00 'Bakarrik eta libre', Andres Espinosari buruzko komikiaren aurkezpena. Zelaietako auditorioan.

Abenduak 22, eguena

20:00 Anariren kontzertu akustikoa. Zelaietako kontzertu gela. Antolatzailea: Nañon.

Abenduak 23, barikua

20:00 Zubiaur Musika Eskolako kideen Gabonetako kontzertua. Zornotza Aretoan. Sarrerak agortuta daude.

Abenduak 24, zapatua

09:00 Belatxikietara igoera Zelaieta parketik hasita. Antolatzailea: Extrem Zornotza.
18:00 Olentzero. Gudari Plaza - Herriko plaza. Antolatzailea: Udabarri.

Abenduaren 26tik 27ra, astelehena eta martitzena

16:00 Gauero + Futbol 7 txapelketa. 14 urtetik gorakoentzat. Larreako futbol zelaia

Abenduaren 26tik 30era

11:30 - 13:30 eta 17:00 - 21:00 Gabonetako Haur Parkea. Zelaieta zentroko frontoian.
11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Txu Txu Trena. Gudari kaleko autobus geltokian.
17:00 - 21:30 Gauero Gabonetan. Gazteentzako gabonetako esparrua. 10 urtetik gora.

Abenduak 26, astelehena

18:00 'Sentsazioak' magia ikuskizuna Hodei magoaren eskutik. Zornotza Aretoan. 5 euro.

Abenduak 27, martitzena

18:00 'Nijoyome' familientzako dantza Nuria Perezen eskutik. Zornotza Aretoa. 5 euro.

Abenduak 28, eguaztena

18:00 'Enperadorearen kondaira' familia antzerkia, Patata Tropikalaren eskutik. Zornotza Aretoa. 5 euro.

Abenduak 29, eguena

18:00 'Grand Mamut, Paleolitiko izakiak' familia antzerkia Markeliñeren eskutik. Zornotza Aretoa. 5 euro.

Abenduak 30, barikua

19:00 Disko festa DJ Pakoren eskutik. Zelaieta zentroko frontoia.

Abenduak 31, zapatua

10:00 Belatxikietara martxa Zelaieta parketik hasita. Antolatzailea: Zornotza Mendi Taldea.
16:30 San Silbestre lasterketa Zelaieta parketik hasita. Antolatzailea: Herrenak triatloi kluba.

Urtarrilaren 2tik 5era

17:00 - 21:30 Gauero Gabonetan. Gazteentzako gabonetako esparrua. Zelaietako kontzertu gelan.
17:00 - 20:00 Gabonetako eskulan tailerrak Zelaietako ludotekan.

Urtarrilak 5, eguena

18:00 Erregeen kabalkada Gudari-Herriko plazan.

Urtarrilak 6, barikua

22:00 Pilota Pro Fest Zelaietako frontoian.

Urtarrilak 7, zapatua

09:00 Hamabi orduko maratoia. Zelaietako frontoian. Antolatzailea: Lagun Onak.

arteka
liburu-denda
artekale, 20
944 657 292
Durango
haur literatura
artea
musika
arkitektura
opari bereziak
erakusketak
arteka
liburu-denda

DURANGOKO
TXAPELAK
Txapel
Gorri
Txapel
Beltz
GOZOTEGiA
gozatu
DURANGO
Tel.: 94 620 16 63
661 40 14 00
Ermodo kalea, 11
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

ESKOLA MATERIALA - ARTE EDERRAK - ILUSTRAZIOA - KALIGRAFIA - BULEGO MATERIALA
Folder
DURANGO
2006-tik zurekin
batera
sortzen

beds
descanso y tu
KOAK
OHEKO ARROPA
beds
KOLTXOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA
Zure premiei erantzuteko prest egongo gara:
bed´s koltxoi-denda
Alluitz, 1 - Durango
944 005 980

urtxintxa
jostailu denda
Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

hitz
liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
#salduenak
1#
BAR GLORIA
Susa
BAR GLORIA
Nerea Ibarzabal
(Susa)
2#
GARI ETA GOROLDIOZKO
Susa
GARI ETA GOROLDIOZKO
Anari Alberdi
(Susa)
3#
NI EZ NAIZ
MIKEL LABOA
NI EZ NAIZ MIKEL LABOA
Iturriaga/Cano/
Larratxe
(Elkar)
4#
BERRIZ ZENTAURO
BERRIZ ZENTAURO
Katixa Agirre
(Elkar)
5#
M
ama eme ume
M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma /
Estitxu Fernandez
(Elkar)

“Eixuren azoka aukera ezin hobea da kalitatezko produktuak erosi eta oparitzeko”

Aurkene Pagalday Ardanza (Elorrio, 1986) Eixu elkarteko kidea da. Bitxigintza lantzen du Kenika izenpean

ARTISAUTZA • EKAITZ HERRERA

Eixu artisauen elkarteak azoka egingo du Landako Gunean gaurtik domekara arte. Azoka 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Aurten, nobedade modura, Mexikoko artisauen lanak ere egongo dira eskuragarri.

Ailegatu dira azoka egunak. Zelan zaudete?

Egia esan, gogotsu gaude datorrenari ekiteko. Gabonen bueltan Durangon egiten dugun hirugarren azoka urtea da honako hau. Udalagaz elkarlanean egiten dugu. Elkartetik uste dugu Durangok ere merezi duela bere artisauen eta sortzaileen azoka propioa. Beste leku batzuetan egiten den moduan, Bilbon, Eibarren zein Donostian, Durangok ere merezi du berea.

Zein lan topatuko ditugu Eixuren azokan?

Denerik. Askotariko sorkuntzak egongo dira. Bitxiak, ume zein nagusientzako arropak, poltsak, ehungintza, osagarriak, zurgintzari loturiko lanak, makrame eta larruzko osagarriak, tindaketa eta estanpazio naturalak, ukenduak eta kosmetika. Bestalde, postu solidarioa egongo da, normalean elkarteekin, Gobernuz Kanpoko Erakundeekin antolatzen dugun postua. Aurten Haica Nana elkartekoak egongo dira. Komunitate mexikarrak osaturiko taldea da, hango artisautza lantzen duena. Mexikoko talde etnikoen lanak mundura zabaldu eta bizitzeko aukera bat sortu gura dute. Horrez gainera, umeen txokoa ere egongo da. Azokatik aparte beste zeozer ere eskaini gura diogu azokara datorrenari. Azkenik, 50 euroko bonuak zozkatuko ditugu erosketaren bat egiten dutenen artean. Barikuan eta zapatuan zozkatuko ditugu, gero domekan erabili daitezen.

Elkartea 2016an sortu zenuten. Zelako bilakaera izan du Eixuk?

Elkartea 2016an sortu genuen, bai. Bederatzi bazkide ginen orduan. Orain bost gara. Modu autogestionatuan lan egiten dugu eta horrek inplikazioa eta esfortzua eskatzen ditu. Azokek aurrera egin dezaten orduak sartu behar izaten ditugu. Bost kideetatik lau elorriarrak gara. Bosgarrena abadiñarra da. Azoka gutxi batzuk egitetik, urtean 15 bat azoka egitera pasatu gara. Durangaldetik aparte, Markina-Xemeinen, Deban eta Mutrikun ere egoten gara.

> ***Aurten, Mexikoko talde etnikoen artisau lanak ezagutzeko eta eskuratzeko aukera egongo da***

Behar den besteko balioa ematen diogu artisauaren lanari?

Denerik ikusten da. Bezero batzuek, bai, asko baloratzen dute artisautza. Beste batzuekin, ostera, lan pedagogikoa egin behar izaten dugu. Jendeak ikusi behar du hauek ez direla makina batek jarraian egindako lanak, banaka-banaka egindakoak dira.

Zein mezu helaraziko zenioke artisautzan hasi gura duenari?

Gogotsu badago, animatzeko. Probatzea da kontua. Ni beti ibili naiz azoka munduan. Ez da erraza, bere zailtasunak ditu. Muntaketa lanak direla, egurraldia dela... Polita da, baina baditu zailtasunak. Jendeak jai izaten duenean guk lan egiten dugu. Artisauren bat mundu honetan sartzeko prest badago, Eixuko kideak prest gaude laguntzeko.

Zure artisau lanei dagokienez, zer lantzen duzu?

Ingeniaritza ikasketak egin-da ditut, baina eskulanak beti gustatu izan zaizkit. Lehen, makrame eta feltrozko osagarriak lantzen nituen. Gero, bitxigintza ikastaroak egin nituen, eta horretan nabil gaur egun. Badira hamar urte zilarrezko bitxiak egiten hasi nintzenetik. Belarritakoak, lepokoak, eraztunak... egiten ditut. Belarritakoak saltzen dira gehien.

Egin deialdia: zergaitik joan behar dugu asteburu honetan Eixuren azokara?

Aukera ezin hobea delako kalitatezko produktuak, bereziak, erosi eta oparitzeko. Azokara doanak artisauagaz aurrez aurre berba egiteko aukera izango du, zalantzak argitzeko aukera. Beti da erakargarriagoa.

Abenduaren 17an kanpaiak joko dituzte Durangoko Madalena auzoan, Auzo Alai elkarteak antolatuta

21:00etan kanpai hotsak entzungo dira auzoko ermitan. Auzokideek mahats aleak eraman beharko dituzte

DURANGO • J.G.

Madalenako Auzo Alai auzo elkarteak kanpai-hots ekitaldia antolatu du. Baina data berezi baterako, abenduaren 17rako. Auzokide guztiei begira antolaturiko ekitaldia den arren, batez ere abenduaren 31 bakarrik pasatzen duten pertsona nagusiei zuzenduriko ekitaldia dela azaldu du Amaia Palacios auzo elkarteko kideak. "Ume, gazte eta nagusiak batzen gara eta momentu eder bat bizitzen ahalegintzen gara", gaineratu du auzokideak.

Kanpai-hots ekitaldia lehenago egiteko ohitura 2019an ipini zuten martxan, auzo elkartearen sorreragaz batera. COVIDaren eraginez 2020an ezin izan zuten antolatu, eta 2021ean murrizketekin izan zen, baina jo zituzten kanpaiak. Aurreko edizio bietan ekimenak oso erantzun oso ona izan dfu. "Auzo elkarteak antolaturiko ekitaldi guztiek erantzun ona izan dute, baina kanpaiena bereziki ona izan da", dio Palaciosek.

Egitarau osoa

17:30ean Kriskitineko nagusien eskolakoen dantzekin hasiko dira. Karmele Elexperen Bidelagun musika taldearen animazioagaz jarraituko dute. Txokolatea eta salda banatuko dituzte. Auzokideei etxean egindako postalak eramatea eskatu diete, ermita apaintzeko eta jende nagusiari oparitzeko. 20:00etan, Durangoko ostalari eta dendariek emandako oparien errifa egingo dute. Kanpai-hotsa 21:00etan izango da. Ermitako kanpaiekin egiten ahaleginduko dira. Ondoren, DJ batek animatuko du giroa.

Elkarteak auzoko jendea biltzea eta elkar ezagutzea du helburu. Horretarako, urte osoko ekintzak antolatzen dituzte Madalenan. Otsailean Txitxiburduntzia egiten dute, apirilean Udaberriko Jaia, uztailaren 22an Madalenako jaiak, eta Durangoko jaietan hainbat ekitaldi antolatzen dute.

Auzo Alai elkarteko kideak kanpaiei buruzko informazioa zabaltzen.

afede

Gure Jostailu-Denda

Olentzero abeslari eta dantzaria.

27,50 €

19,99 € Ref. 17482
Hezigarria
Konektatu hezigarria euskaraz
352 lamina
+5 URTE

500 proba baino gehiago

19,95 € unidad Ref. 10103
Party & Co Junior
+8 URTE

29,95 € Ref. 7057
Bazen behin... bizitza
Giza gorputzari buruzko 2.200 galdera-erantzun, 5 ataletan banatuta
+6 URTE

25,95 € Ref. 2410
Euskaljokoa
+8 URTE

39,99 € Ref. BGVAS
Catan
Estrategia eta abilezia jokoa
+3 URTE

12 € Ref. 7010E
Zein da zein?
Asmatu aurkiaren animalia-txartela
+4 URTE

19,95 € Ref. 88001
Hitzak osatu
9 lamina eta 54 irudi ditu
+5 URTE

DURANGO - Fray Juan de Zumárraga, 15 • **ZORNOTZA -** Gudari Etorbidea, 49 • **EIBAR -** San Juan, 13 • **ARRASATE -** Kontzezino, 12

Athletic Club Vs CA Osasuna

Athleticen eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Anbotokideen artean San Mames VIP Areako palkorako sarrera bikoitz bat zozkatuko du Anbotok. Egin zaitez Anbotokide eta zatoz esperientzia zoragarri hau bizitzera.

Zozketan parte hartzeko azken eguna: abenduaren 21a.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan! >

anboto kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

anboto kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
• %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA
• %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA
• %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA
• %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
• %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
• Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA
• Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA
• %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA
• % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
• %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA
• %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA
• %5eko deskontua liburuetan
• % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA
• %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
• %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA
• %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan



Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez anbotokide!

anboto kide

'Zehar'

DANTZA **BERRIZ :: ABENDUAK 17**

Ertza dantza konpainiaren 'Zehar' ikuskizuna Berrizen

Inguratzen gaituen guztiak, gu geu barne, etengabeko mugimendu zikliko batean parte hartzen du. Jaiotze eta hiltze errepika baten barruan. Eta gure begietara zerbait hiltzen denean, beste ziklo baten parte izatera pasatzen da. Hori oinarri hartuta sortu du Ertza dantza konpainiak *Zehar* ikuskizuna. Hari horri tiraka, pertsona baten transformazioen testigu izatera gonbidatuko dute ikuslea, itxura, emozio, bizipen eta ikasgai ezberdinetan zehar ordubeteko bidaia bat eskainiz, konpainiak berak azaldu duen moduan. "Edo hobe esanda, bizitza labur bat. Nahiz eta hemen ere zaila den esatea eszena horiek noiz jaio ziren eta noiz hilko diren", zehaztu dutenez. Berrizko Kultur Etxean egongo da ikusgai ikuskizuna, 19:00etan. Asier Zabaleta eta Iñar Sastre igoko dira oholtzara.

Abenduaren 16an

ABADIÑO antzerkia
'Tabernaria' (Tartean Teatro konpainia), 19:00etan, Isiotu elkartearen lokal berrian.

BERRIZ antzerkia
'Laika' (Xirriqueteula konpaina), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO berbaldia
'Kozinatzeak egin gintuen gizaki' (Hizlaria: Juan Ignacio Pérez Iglesia EHUko biologoa), 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO dastapena
'Elikatu Durangaldea' dinamika: Arrazolako Panarra okindegiko Gabi Romeroren ogi artisaua ezagutzeko aukera, 12:30ean, frontoiko plazan.

ELORRIO musika
Silitia + Ez Ez Ez, 22:30ean, Ateneoan.

Abenduaren 17an

ATXONDO kontzertua
Konorte + Ainke, 22:30ean, Atxondoko Gaztetxean. DJ Nausi, 01:00ean.

BERRIZ ipuinak
'Mari Domingiren ipuinak' (Elssie Xalbador), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika
Musika Hamabostaldia: Gehi Zazpi, 19:00etan, Kurutze Santu Museoan.

IURRETA azoka
Orekarte: Bigarren eskuko eta artisau azoka, 10:00etatik 15:00etara, Askondoko plazan. Parrillan egindako ogitartekoak (Bizio), eguerdian

ZORNOTZA dastapena
'Elikatu Durangaldea' dinamika: Garaiko Ana De La Maza garagardo eta kontserba egileak elikatzeko eta kontsumitzeko moduak landuko ditu,12:00etan, herriko plazan.

Abenduaren 18an

ATXONDO ekitaldia
Migratzaileen Nazioarteko Eguna.
Mahai-ingurua: Aita Mari + Zaporeak + Irungo Harrera, 11:00etan, eskolan.
Umeentzako tailerrak, frontoian.
Batukada (Batukandra), 13:00etan.
Bazkari herrikoia, 14:30ean.
Kontzertua: Astoturfer, 16:00etan.

ELORRIO antzerkia
'Laika' (Xirriquiteula Teatro konpainia), 17:00etan, Arriola antzokian.

DURANGO txotxongiloak
'Pintto Pintto' (Anita Maravillas konpaina), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Abenduaren 16tik 18ra

DURANGO azoka
Artisau eta sortzaileen Gabonetako azoka, 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara, Landako Gunean.

Abenduaren 18ra bitartean

DURANGO lehiaketa
Gazteen lehiaketa artistikoa, Ezkurdi erakustazokan. Durangaldeko Artista Elkarteak antolatuta.

Abenduaren 20an

BERRIZ berbaldia
'Gabonak dira eta aulki hutsa dago etxean' (Hizlaria: Izaskun Andonegi), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Iñaki Etxezarragaren eta Jon Barcenaren testigantzek borobilduko dute hitzaldia.

Abenduaren 23an

BERRIZ magia
'Magiaz Blai!' (Eriz Magoa), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Abenduaren 23ra bitartean

BERRIZ erakusketa
'Bakardade ikusezina'
Ruben Orozco Loza eskultore mexikarraren Mercedesen eskultura, Berrizko Kultur Etxean.

Abenduaren 31ra bitartean

ELORRIO erakusketa
'Sei begirada. Kezkaz, misterioz bizitako uneak'
Iturri kultur etxean. Begoña Colomo, Patxi Granado, María Otxandiano, Karlos Eriz eta Josu Urizarbarrena argazkilarien argazkiak biltzen ditu.

Urtarrilaren 9ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa
'Euskal kulturaren nazioarteko atea', Bilboko Euskal Museoak antolaturiko erakusketa ibiltaria.

Otsailaren 2ra bitartean

DURANGO erakusketa
'1882/1969 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea', Arte eta Historia Museoan.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

- ***As Bestas***

barikua 16: 19:30
domeka 18: 19:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

- ***Avatar (2D)***

barikua 16: 19:00
zapatua 17: 17:00/21:00
domeka 18: 18:00
astelehena 19: 18:30
martitzena 20: 18:30
eguaztena 21: 18:30

- ***Avatar (3D)***

barikua 16: 18:00
zapatua 17: 16:00/20:00
domeka 18: 17:00
astelehena 19: 18:00
martitzena 20: 18:00
eguaztena 21: 18:00

- ***El viaje a París de la Sra. Harris***

barikua 16: 19:00
zapatua 17: 18:30/21:00
domeka 18: 19:30
astelehena 19: 19:00
martitzena 20: 19:00
eguaztena 21: 19:00

- ***Mundo extraño***

zapatua 17: 16:30
domeka 18: 17:30

- ***El Cascanueces***

eguena 22: 19:00

::Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

- ***As Bestas***

zapatua 17: 20:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 21:00

::Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

- ***La maternal***

barikua 16: 20:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:15

- ***Mundo extraño***

domeka 18: 17:00


www.gualbiasesores.com
Bezeroa, bere enpresako kudeaketa eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia
Gualbi
asesores
Aholkularitza fiskala
Kontabilitate-aholkularitza
Merkataritza eta finantza-aholkularitza
Lan-aholkularitza
Kontu-auditoretza
Aholkularitza juridikoa
Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.:946 818 636 - Faxa: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Hertzainak taldeko kideek 'Azkena gure alde' birari ekingo diote asteburu honetan; lehenengo kontzertu biak BECen izango dira

Hertzainaken agur birako lehenengo kontzertu biak izango dira asteburuan, gaur eta bihar, Barakaldoko BECen

Josu Zabala, Iñaki Igon Garitaonandia 'Gari', eta Luis Javier Sainz 'Txanpi' ". @IBAIARRIETA

MUSIKA • A. M.

Hertzainak taldea berriro batuko da hiru agur kontzertu emateko. Josu Zabala otxandiarra, Iñaki Igon Garitaonandia 'Gari' eta Luis Javier Sainz 'Txanpi' musikariak *Azkena gure alde* birarako elkartuko dira berriro. Kontzertu horietariko bi Barakaldoko BECen izango dira, barikuan eta zapatuan; gaurko emanaldiko sarrera guztiak salgai ipini eta lasterrera agortu ziren. Baina oraindino badaude batzuk biharko kontzerturako. 2023ko urtarrilaren 6an izango da azken kontzertua, Gasteizen, karpa erraldoi batean; emanaldi honetarako ere geratzen dira sarrerak. Taldearen webgunean erosi daitezke.

Hertzainak taldea 1981ean sortu zen eta 1993an utzi zion jotzeari. Donostiako Anoeta kiroldegian jo zuen azken kontzertua. Taldeak sei lan argitaratu zituen: *Hertzainak* (1984), *Hau dena aldatu nahi nuke* (1985), *Salda badago orratzak* (1992). Horren ostean, musikari lotuta jarraitu dute 'Gari'-k (bakarka), Josu Zabalak (Zazpi eskale eta Gu eta Gutarrak, besteak beste), eta 'Txanpi'-k (Doctor Deseo). 'Gari'-k eta Josuk Bilboko Kafe Antzokian eta Euskaldunan jo zuten 2019an. Emanaldi horien arrakasta ikusita erabaki dute *Azkena gure alde* antolatzea.

Durangaldeko gonbidatuak

Hiru hitzordu berezi hauetarako, hainbat gonbidatu igoko dira taula gainera Josu Zabala, 'Gari' eta 'Txanpi'-gaz batera, eta horietariko batzuk Durangaldekoak dira, Hertzainakegaz zein bestelako ibilbidean zehar kideek bidelagun izandakoak. Horrela, gaurko emanaldian Erika Lagomak, Xabi Aburruzagak, Maddalen Arzallusek, Xabier Berasaluze ´Leturia´-k, Nerea Elustondok, Onintza Enbeitak, Zea Mayseko 'Piti' Imazek eta Aiora Renteriak, Kantu bat gara taldeak, Ane Labakak, Mikel Markezek eta Joseba Tapiak parte hartuko dute. Eta zapatukoan Igor Elortza eta Unai Iturriaga durangarrek, Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak, Rufoh Beatboxek, Eñaut Elorrietak, Olaia Inziartek, Endika Lahainek, Etxahun Lekuek, Maisha MCk Bixente Martinezek, Xabi Payak, Pettik eta Rafa Ruedak.

Zapatuko eta Gasteizko kontzertuetarako sarrerak geratzen dira webgunean

Azkena, Gasteizen

Agur birako azken kontzertua Gasteizen egingo dute, etxean. "Bertan hasi zen dena eta bertan amaitzea zor diogu", azaldu zuen hirukoteak azaroan egindako prentsaurrekoan. Xabier Amurizak ere parte hartuko du emanaldi horretan.

Durangoko Azokak "aurreikuspenak beteta eta pozik" itxi ditu ateak bere 57. edizioan

Durangoko Azokaren bost egunak oso jendetsuak izan dira.

DURANGOKO AZOKA • A. M.

Urte biko ezohiko edizioen ondoren, Durangoko Azokak ohiko dimentsioak berreskuratu ditu aurten. "Ospatzeko urtea izan da, berriro elkartzekoa, kulturaren plazari berriro ere bizia ematekoa, eta giro hori igarri dugu Azokan", azaldu dute antolatzaileek. Izan ere, Durangoko Azokaren 57. edizioak "aurreikuspenak beteta eta pozik" itxi ditu ateak. Milaka kulturzale etorri dira Durangora, eta Landako Gunea eta Azokaren beste guneak txiki geratu dira hainbat ekitalditan. Salmentei dagokienez ere, osasun krisiaren aurreko kopuruetara heldu direla nabarmendu du Gerediagak. Sormen lan ugari agortu egin dira ibilbide luzeko sortzaileen kasuan, baina baita hasiberri batzuen kasuan ere. Kulturzaleek aurrez aurreko azokari lehentasuna eman diote Interneteko dendaren aldean", azaldu dute. Ekitaldirik jendetsuenen artean, Ene Kantak-ena, Anari Alberdirena, Nerea Ibarzabalena eta Paul Urkijoren *Irati* filmarena aipatu dituzte.

Durangoko Azoka "oasi bat" izan ez dadin, Durangon bizitakoa Euskal Herrira zabaltzea da orain Gerediagaren helburua. Horretarako, *Zu non, han DA!* ekimena ipini dute martxan. Horrela, Euskal Herriko 132 saltokitan Azokako literatur nobedadeak eskuratzeko aukera egongo da.

ARRIGURI

Elorrioko musikazaleen AteneON ekimena bueltan da, Silitia eta EZ EZ EZ taldeegaz

22:30ean hasiko da, eta sarrerak 8 euro balioko dute; momentuan erosi ahalko dira

MUSIKA • A.M.

AteneON ekimeneko denboraldi berriari ekingo diote gaur. Musikazaleek kontzertu gehiago egiteko asmoa duten arren, oraindino bi egin dituzte publiko. Gaurkoa da lehenengoa, eta Silitia eta EZ EZ EZ taldeek joko dute, 22:30ean. Silitia taldea Xabier Barrutiak (gitarrak, baxua, bateria eta teklatua) eta Ibai Silicatok (ahotsa eta perkusioa) sortu zuten, Bilbon. "Inprobisaziotik hasi eta dantzatzea" dute gustuko, eta askotariko proposamena dute, euren esanetan: "Batzuetan rockeroagoa, beste batzuetan lasaiagoa; batzuetan elektronikoa, beste batzuetan guztiz organikoa". EZ EZ EZ Unai Madariaga musikari bilbotarraren proiektu berria da. *When i think something funny I smile* diskoa kaleratu du oraintsu, eta hori aurkeztuko du barikuan. Doinu desberdinak batzen ditu, oinarria rocka den arren.

Jaia borobiltzeko, etxeko musika jartzaileak egongo dira. Sarrerak kontzertu egunean bertan ipiniko dituzte salgai, 8 euroan.

Hurrengoa, urtarrilean

Bigarren hitzordua urte berria hasteagaz batera izango da, urtarrilaren 20an. Gau horretan, Otoik eta -Gailuk emango dute kontzertua. Otoi Urtzi Iza musikari eta ekoizlearen proiektua da; *Tophus* diskoa kalera du oraintsu. -Gailu talde beteranoa da. Mikel Abrego musikariak (BAP!, Negu Gorriak, Anari...) sortu zuen, 1997an, Luis Andre bideogileagaz batera; 2021ean proiektua berpiztu zuen Abregok, eta *Begiak, egiak ba ote?* diskoa kaleratu zuen Okene Abregogaz eta Xabier Olazabal 'Drake'-gaz.

'Tabernaria' bakarrizketa emango dute Isiotun

Barikuan izango da emanaldia, 19:00etan, Abadiñoko Isiotu elkartean; Mikel Martínez da protagonista

ANTZERKIA • A. M.

Tabernaria tabernako bakarrizketa bat da. Mikel Martínez tabernariak bere ostatuko bezeroei deitzen die, garagardo kaña bat ondo zelan atera azaltzeko. Bakarrizketak aurrera egin ahala, baina, tabernaria bere duda eta kezkei buruz berba egiten hasten da, baita kutsu sozialagoa duten kezkei buruz ere. Tartean konpainiak 2018an estreinatu zuen antzezlan hau, eta ordutik 30 emanaldi baino gehiago egin dituzte. Patxo Telleriak idatzi eta zuzendu du *Tabernaria*. Ordu erdiko antzezlana da eta atzekoz aurrerako egitura du, baina ez "kapritxoagaitik". Izan ere, ekonomiaren eta denboraren artean dagoen gatazka azaleratzen du egiturak. Isiotuk Katalamixon elkarteagaz batera antolatu du bakarrizketa. Antolatzaileen esanetan, sarrera doakoa izango da.

Isiotu elkarteak Abadiñon du egoitza, Laubideta kalearen 6. zenbakian.

Mikel Martínez, emanaldi batean.

Gai librean

Iruñea. Atarrabia. BEC

Ordena horretan. Futbol jokalari batek bere lehentasunak modu horretan azaldu zituen. Eta nire lehentasunak ere horrela ordenatzen hasi naiz. Euskal kulturak bizi ditzakeen egunik handienetakoetan sartuta gaude. Eztandak olatua egin eta Durangoko Azokaren gainean surf egiten ibili ginen asko eta asko joan zen astean. Oraingoan hiru zita ditugu, bat urterokoa eta bi historikoak. Has gaitezen gaurtik, zutabe hau idaztera ekarri nauenetik.

Ez zirela itzuliko esan zuten hainbat bider. Amaiera giro intimo batean izango zenaren zurrumurrua, zurrumurrua baino gehiago zen hasieran. Rock'n Rollak ez zuela dirurik emanen esaten zuten. Askotan erabili den esaldi bategaz laburtu nezake nire iritzia: Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. 90eko

Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

Urterokoa urtero egonda... bazegoen beste datarik aukeratzea. Baina agentziei, bost axola

hamarkadan nerabe zein gazte izan zirenei ilusioa egin die Hertzainaken itzulerak, egingo ez die ba! Eta badakit asko egongo direla desados nire iritziagaz baina, asko sakondu barik, argi dago Rock'n Rollak dirurik ez balu emango ez litzatekeela itzulera hau gauzatuko. Ez diot musikariengaitik, atzetik dauden agentziengaitik baizik. 2019an itzuli baziren, beharrik zegoen hau egiteko? Tira, hor laga dut galdera.

Uste dudana da, hain zuzen, zapatuko bigarren BEC-tekadaren bila asteburuko bigarren ekintzari, urterokoa denari, onurarik behintzat ez diola egingo. Kontzertuak iragarri bezain laster etorri zitzaidan burura: "Hatortxu Rock-en egun berean? Zergaitik?" Pena da, eztabaidatu daiteke bi ekitaldien publikoaren zati bat berbera den ala ez, baina urterokoa urtero egonda… bazegoen beste datarik aukeratzea. Baina agentziei, bost axola.

Asteburu ezin intentsoagoa bukatzeko, final historiko bat izango du Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Lehen aldiz, hiru emakume egongo dira finalean. Nafarroa Arena txiki geratuko da. Batzuk zuzenean arituko gara bertakoak kontatzen. Espero dut inoiz kontatu ez dena kontatu ahal izatea, onerako noski. Finalista bategaz topo egin nuen joan zen astean azokan, eta ezin zuen ezkutatu kirioak dantzan zituela. Barrua zirraraz bete behar duela esan nion, ez arduraz. Asteburuak horrela harrapatuko gaituelakoan nago, zirraraz. Ni Atarrabiatik Iruñera ibiliko naiz asteburuan. Eta zuk, zer mix egingo duzu?

Pandemia osteko lehenengo Hiri Proba domeka honetan egingo dute apirilean barik, eta aurrerantzean data honi eutsiko diote

Antolatzaileek uste dute hilabete aproposa dela iraupen korrikalariak batzeko. Urtero lez, umeen lasterketak ere egingo dituzte, mailarik maila

Elite mailako lasterketan 200 parte hartzailetik gora itxaroten dituzte, eta gazte mailetan beste hainbeste.

LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Iurretako Hiri Probak 40. aldia beteko du domeka honetan, abenduak 18. Pandemia osteko lehenengoa izango da. Aurtengo nobedade nagusia da apirilean barik abenduan egingo dutela. Mundu mailako kros lasterketen egutegia berrantolatu egin denez, antolatzaileek pentsatu dute abenduko egun hauek direla egokienak iraupen korrikalariak batzeko.

Beste aldaketa bat honako hau da: aurrerantzean, Hiri Proba herrikoia eta nazioartekoa tartekatu egingo dituzte. 2023an lasterketa herrikoia baino ez dute antolatuko, xumeagoa eta antolaketa aldetik eramangarriagoa; eta 2024an nazioarteko lasterketagaz bueltatuko dira.

Aurtengoa nazioarteko lasterketa da eta, urtero lez, korrika egitea gustuko duen edonork parte hartu dezake. "Lasterketa honek duen berezitasuna da eliteko korrikalariekin batera aritzeko aukera eskaintzen duela. Kirola gustuko duen edonork parte hartu dezake, azken batean kirol guztietan egiten delako korrika, beroketa ariketak egiteko bada ere", adierazi zuen Cristina Petite korrikalari ohi eta lasterketa antolatzen duen Bidezabal atletismo klubeko kideak.

5 eta 10 kilometroko lasterketak daude aukeran. Zirkuitua urterokoa da, 2017tik homologatua dagoena. Lasterketa nagusia 12:00etan hasiko da, Maspen, eta helmuga Askondoko aterpean ipini dute.

Izen-ematea doakoa da eta gaur da horretarako azken eguna, *www.kirolprobak.com* webgunean.

Eliteko parte hartzaileei dagokienez, Irene Pelayo, Nuria Lugueros eta Beatriz Álvarez aipatu daitezke faborito emakumeetan, eta Santiago Catrofe, Sergio Jiménez edo Ibrahim Chakir gizonetan. Goi mailako korrikalari gehiago ere etorriko direla azaldu dute antolatzaileek, nahiz eta oraindino ezin diren baieztatu.

Umeen lasterketak

Urtero lez, goizean zehar ume eta gazte mailetako lasterketak egongo dira: kadete, benjamin, kimu eta txupeteak (2016tik hona jaiotakoak). Izen-ematea lehenbailehen egiteko eskatu dute Bidezabal Atletismo Klubeko antolatzaileek. Izan ere, parte hartzaileen artean gozokiak oparitzen dituzte eta aurreikuspenagaz jokatu gura dute inor gozokirik barik ez geratzeko.

Azken jardunaldietan Durangoko Kulturala indartsu dabil etxean

Hurrengo partidua bihar izango dute, zapatua. Kulturaleko jokalariek Lagun Onak taldearen aurka jokatuko dute, Azpeitian. 17:00etan izango da, Garmendipe futbol zelaian

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBIZKAR

Durangoko Kulturala bolada onean dabil azken partiduetan. Talde durangarreko jokalariek berdinketa bat eta garaipen bi lortu dituzte azken hiru partiduetan. Garaipenetariko bat, gainera, sailkapen nagusian goiko postuetan dagoen Deustoren kontra lortu dute. Erraz lorturiko garaipenak izan dira, partidu bitan launa gol sartu dizkiete-eta aurkariei.

Hurrengo partidua zapatuan izango dute, abenduak 17, Azpeitian. Durangarrek Lagun Onak taldearen aurka jokatuko dute, Garmendipe futbol zelaian. Lagun Onak 11. postuan dago sailkapen nagusian, eta Kulturala 6. postuan.

Aurreko partidu bateko argazkia.

Santxibiri lasterketa egingo dute domekan Elorrion

Izen-ematea 'kirolprobak.com' webgunean egin daiteke. Gaur eta bihar ere bai, 11:00etatik 13:00etara, udaletxean

LASTERKETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urteroko ohiturari eutsiz, Santxibiri lasterketa herrikoia egingo dute Elorrion. Domekan izango da, abenduak 18. Nagusien lasterketa 5,5 kilometrokoa da eta 12:30ean izango da.

Haurren lasterketak 12:00etan hasiko dira. Hiru talde egingo dira: eskolakoak A (2012an edo geroago jaiotakoak), eskolakoak B (2010-2011 urteetan jaiotakoak) eta eskolakoak D (2008-2009 urteetan jaiotakoak). Parte hartzea doakoa da, baina izena ematea derrigorrezkoa izango da.

Aurreko edizio bateko argazkia.

Jokaldia

Atseden fisiko eta mentala

Lasterketetan ez dabiltzan lagunek batzuetan galdetzen didate ea noiz amaitzen den nire kirol denboraldia. Kanpotik ikusita badirudi lehiaketetan gabiltzanok ez dugula atsedenik hartzen, ezta?

Egutegi eta lasterketa zirkuitu edo ligak egon badaude, baina bakoitzak jarri behar du bere geldialdia norberaren egutegian. Mendi korrikalari batzuek euren sareetan lasterketen denboraldia amaitu dutela argitaratzen dutenean horixe bera esan nahi dute askotan, atseden pixkat hartu eta mendiko lehiaketak alde batera utziko dituztela pare bat hilez.

Egia da abendu eta urtarrilean ez daudela mendi lasterketa asko, baina otsailetik azarora bitartean nahi bestetan har zenezake parte. Argi dago lehiatzeak fisikoki ez ezik, psikologikoki ere asko nekatzen duela eta oso korrikalari gutxik eman dezaketela maila ona urte osoan. Sarri lehiatzeak ekar dezake lasterketa bitarteko tarteetan behar bezala ez entrenatzea eta lesionatzea. Teorikoki hobe da entrenamendu saioak ondo planifikatu eta betetzea lehiaketa gutxi batzuetara bideratuz (prestatzaile fisiko on batek lagun zaitzake), baina gai honetan ere indibidualtasuna aurkitu behar da; izan ere, batzuek ia asteroko lehia puntu hori behar dute motibazioa mantentzeko. Beti bezala, orekan dago gakoa eta epe luzean ondo sentiarazten gaituen hori egitean ere bai.

Atseden aste hauetan ondo legoke osasun azterketa oso bat egiteko aprobetxatzea: odol analisiak bitamina/mineralen gabeziak dauden ikusteko, aspaldian kasu egin ez diozun min edo eritasun horri entzun eta nondik datorren aztertzeko... Azken batean, lehentasuna emateko azkenaldian eman ez diozun arlo horri.

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak

Sarri lehiatzeak ekar dezake lasterketa bitarteko tarteetan behar bezala ez entrenatzea eta lesionatzea

Atseden egun hauetan ondo legoke osasun azterketa oso bat egiteko aprobetxatzea: odol analisiak...

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.
Herri bat BERRIAren kulturaren plazan.

Izan BERRIAlagun **6 hilabetez 50 euroan**
eta eraman BERRIAren agenda opari



Asteko ikuspegia

Bietako bat aukeran

Eguneko ikuspegia

Berria.eus/berrialaguna

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2023
Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoko estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda
	Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda

Anboto Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

Botikak

BARIKUA, 16 · 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 17 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 18 · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 19 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 20 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 21 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 22 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGIA
Zorionak, **Unai (917. alea)**!
Zorionak guztioi!
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com

Zuriñe Nogalesek 13 urte egin ditu abenduaren 15ean. Zorionak! Jarraitu horren jatorra izaten…

Abenduaren 15ean urteak egin zenituen. Zorionak, izeko **Jaione**! Etxeko danon partez!

Abenduaren 12an **Zigor Gerediaga Ingunzan** urtebetetze egune izen zan eta ondo pasau gendun, sukaldari aparta da berau! Mosu eta besarkada haundi bana etxeko eta lagunen partez.

Zorionak, amama **Mila**! Mara eta Manexen partez moxu handi bat eta pilo bat matte zaittugu!

Abenduaren 16an **Telmok** 9 urte egiten ditu eta 21ean **Martinek** 11. Gezurra dirudi oin dela gutxi lehen pausuak emoten egon zinetela ta ointxe berriz, gelditu ezinik… Hau bai parie! Segi holan.

Zorixonak, **Nile**! Mosu handi bat aitatxoren, amatxoren eta Oihanen partez!



Zorionak, **Angie**, 10 urte jada. Muxu erraldoi bat aitatxoren partez. Maite zaitut!

Zorionak, ama! Topera ospatu bihakogu! Asko maitxe zaitxugu! Mosu bana etxekuon partez!



Iruñan bizi dan **Izaro Argos Velerdasek** abenduaren 13an 3 urte egin zituen. Zorionak Berriztik, lehengusu Gari eta Lierren partez, eta batez be amama Maribiren partez.

Abenduaren 14an lau urte egin zenituen. Zorionak, **Gari**! Etxeko danon partez.

Zorionak, **Sugar**! Gozatu zapatue merezi dozun moduen!

Eguraldia

ZAPATUA 0° / 12°	ASTELEHENA 8° / 14°	EGUAZTENA 7° / 12°
DOMEKA 4° / 13°	MARTITZENA 9° / 16°	EGUENA 6° / 12°

DA!
ZU NON, HAN DA!
57. DURANGOKO AZOKA
LIBURU AURKEZPENAK
Abenduak 13. 19:00
Harkaitz Cano. "Pozaren erdia". Hitz (Durango)
Abenduak 20. 19:00
Anari Alberdi. "Gari eta Goroldio". Arteka (Durango)
gerediaga elkartea
Euskadi Gobierno Vasco
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

"Kulturismoa bizitzeko modu bat da niretzat, biziera osasuntsua"

Andoni Alvear Kulturismo Naturaleko Espainiako txapelketako maila bitan izan da txapeldun aurten, eta Europan hiru kategoriatan lortu du irabaztea

Andoni Alvear Arabiourrutia
Kulturismo naturala egiten du
DURANGO I 2000

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Andoni Alvearrek esku pilotatik kulturismorako saltoa egin du azken urteotan; tarte horretan, errugbian ere jokatu zuen. Gimnasiora joaten hasi zenean, harra sartu eta aurten kulturismoan lehiatu da.

Zerk erakarri zintuen kulturismotik?
Arrazoi estetikoengaitik hasi nintzen gimnasioan, nire gorputza handiago ikusi gura nuen. Orain urte bi prestatzaile bategaz hasi nintzen lanean, eta iaz lehiatzen hastea erabaki genuen. Oraindino ere erakartzen nau estetikak, baina malgutasunez jokatu nezake. Gainera, indarra lantzeko aukera ere badut. Gutxienez ordu bi ematen ditut indarra eta hipertrofia (giharra handitzea) lantzen bost egunetan. Hurrengo egun bietan arlo kardiobaskularra lantzen dut, kirolari osotua izateko.

Bizitzeko modu bat da zuretzat?
Hala da; modu osasuntsua, gainera. Lehiatzeko momentuan horretara gaude, ehuneko ehunean. Obsesio ere bihurtu daiteke, baina momentu zehatz bat da. Orain bolumen fasera heltzeko nabil lanean, eta ez dut horrenbesteko presiorik. Lagunekin afaltzen edo bazkaltzen disfrutatzeko aukera dut. Oreka bat lortu beharra dago.

Aurreritzi asko dago oraindino kulturismoaren munduan?
Bai. Uste dute ezjakinak garela, agresiboak, astakiloak... Kulturismoa egin barik ere, gimnasiora joatea hainbat kirol praktikatzeko da onuragarria: errugbia, futbola... Zer esango duten eta giharra asko handituko ote zaien beldurra dago oraindino. Baina muskulua ez da handitzen egun batetik bestera. Gimnasioa bakarkako jarduna izanda, atsegina eta eskertzekoa da horretan dabilen jende gehiagogaz elkartzea. Elkarri laguntzen diogu.

> ***Itzela izan da agertokian egotea. Oso gustura sentitu naiz, etxean lez, eta asko disfrutatu dut***

Zein ekarpen egin dizu kulturismoak?
Egonkortasuna ematen dit, eta ez kirolari lez bakarrik. Arlo pertsonalean ere ordena bat ematen dit helburuak lortzeko, koherentzia bat.

Kulturismo naturalak zer du berezi?
Substantzia dopatzailerik barik egiten den kulturismoa da eta dopin kontrol asko dago. Zigor gogorrak egoten dira. Modu artifizialean urtebetean lortu daitezkeen emaitzak lortzeko, nik bost urte behar ditut. Gainera, ezinezkoa da gorputz berdina edukitzea. Hala ere, ondo landuz gero gorputz naturala politagoa da niretzat. Hautu pertsonala da.

> ***Kulturismoak egonkortasuna ematen dit, eta ez kirolari lez bakarrik. Arlo pertsonalean ere ordena bat eman dit***

Diziplina handia eskatzen du?
Bai, kirol diziplinatua da, epe luzera begirakoa. Eguneroko entrenamendua baloratzen ikasten da, lan askoren ondorioz emandako pausoak txikiak direlako. Elikadura zaintzea ere oinarrizkoa da.

Aurten lehiatu zara lehenengoz. Zelako esperientzia izan da?
Itzela izan da agertokian egotea. Oso gustura sentitu naiz, etxean lez, eta asko disfrutatu dut. Urduritu barik, eta natural irten nuen, lotsarik barik. Alde horretatik, oso pozik nago.

Zeintzuk erronka dituzu orain?
Bizpahiru urte barru berriro lehiatu gura dut. Ondo prestatuta joan gura nuke. Eta WNBF ligan profesional izatea eta mundialera joatea amesten dut. Epe laburrera, powerlifiting-a probatu guran nuke, eta harri-jasotzeak ere erakartzen nau.

Lau-hortza

Markel Sachez Zelaia
Behargina

Surik bai?
Sorginolako afixa batek zioen duela bizpahiru urte: ez gaitu izutzen negu hurbilak. Kalefakzioa ez zen, baina, gazteen gogoa berotzen zuena bakarrik.

Durangoko Azokak eztanda egin eta bost egunez Durangok su hartu du. Baina egunak joan ahala beroaldia ere badoa apurka-apurka, eta negua hurbil dator. Orain eguneroko kultur panorama da geratzen zaiguna.

Zorionez, Durangaldean baditugu sutondoak ez gaitezen hotzak hil, baditugu kandelak kale-argi, eta baditugu lantzean-lantzean sugarrak ere, inor erretzerainokoak.

Kultura hegemonikoak izoztu ez gaitzan behar ditugu suak, euskarazko suak, beste mundu ikuspegi batenak. Arteak eta kulturak balio dezaketelako errealitatea ulertzeko, errealitatea beste modu batera pentsatzeko eta baita errealitate berriak sortzeko ere.

Matienan isiotu dute txinparta; Durangon, ostera, su batzuk amatatu dira han-hemen. Sorginola, adibidez, aurri eta hautsa da orain, eta *Plateruena ta gero zer?* dinamikak ere bere bidea amaitu behar izan du. Eta su bat piztu dutenek badakite zein lan dakarren txinparta bat sortzeak, zenbat jenderen lana, gogoa eta ikusmira bateratua behar diren.

Plateruena, ostera, martxa hartzen hasi da, eta ikustear da komunitate bat berotzeko gaitasuna izango duen. Oxala Durango argituko duen itsasargia izatea, belaunaldi oso baten sorleku, kultur proiektu sendo bat osatu eta errealitatea moldatzeko gai izatea. Eragingo du, igual, kultura politikez aritzean gasolinaz ari garen edo zerbait aseptikoz, ospitale batekin konparagarri. Asmoa sutxo baten epel-goxoan egotea den ala txinpartak bizitu eta zeruari su ematea.